

**DROGAMENPEKOTASUNEI BURUZKO
PREBENTZIO KOMUNITARIOAREN
HONDARRIBIKO IV. UDAL PLANA
2008-2012**

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. METODOLOGIA	4
3. ARAU ESPARRUA	6
4. TEORIA ESPARRUA	9
* Teoria ereduak	
* Ekimen Esparruak	
5. DIAGNOSIA	16
* Azterketa Sozio-Demografikoa eta Ekipamenduak.	
* DAFO analisia	
* Droga Kontsumoari buruzko Analisia	
6. DROGAMENPEKOTASUNARI BURUZKO UDAL PLANAREN GARAPENA 2008-2012	42
* Planaren Helburua	
* Planaren Erronkak	
* Planaren baliabide estrategikoak Ekimen Esparruaren arabera	
* Plana sustatzeko barne Konpromiso eta Akordioak	

SARRERA

Ondoren **Drogamenpekotasunen Prebentzio Komunitarioaren Udal Planaren Proposamena 2008-2012** aurkezten da Hondarribiko Udalbatzan onar dadin , datozen bost urteetan drogamenpekotasuna osotasunean azterturik prebentzioan ekiteko ildo estrategikoak proposatzen dituelarik.

Bertan Hondarribiko udalean drogamenpekotasun alorrean ditugun erronkak azaldu ditugu, baita horrekin zerikusia duten *departamentuen* azpiegitura akordio eta konpromisoak ere, herrian Drogamenpekotasunari buruzko Udal Plana sustatzeko asmoz.

METODOLOGIA

Drogamenpeketasunen Prebentzio Komunitarioaren Udal Plana 2008-2012 burutzerakoan metodologia parte hartzailea garatu dugu batez ere. Aurreko Planean prozesu partehartzailea garatu eta diseinatu genuen eta oso emaitza onekoa izan zen, beraz oraingo honetan antzeko prozesua proposatu dugu, drogamenpeketasuna prebenitzeko baliabideak eta garatu beharreko ildo berriak ezartzerakoan erabilgarria izango dena.

Zentzu horretan, oinarritzak izan da prozesu hori garatzeko *mahai komunitarioei* ekin eta berauek garatzea. Hori dela eta lau mahai edo lan talde eratu ziren eta bertan profesionalek, udal arduradunek, hiritarrek eta beste zenbait gizarte eragilek 4 saiotan Hondarribiaz eta zenbait alorretako prebentzio komunitarioaz jardun dute.

Ahuleziak, indarrak mehatxuak eta aukerak aztertutik (AIMA) lan saio hauen helburua Hondarribiko Udal Diagnostiko Komunitarioa lortzea izan da. *Mahai komunitario* horiek gehienbat lau alorretan oinarritu dute haien analisia: gazteenean, eskola eta familian, alor komunitarioan eta osasun alorrean.

Prozesu parte hartzaile honetan alor horrekin zerikusia duten 65 bat lagun aritu dira, besteak beste Hondarribiko Udaleko zinegotzi eta teknikariak, udaltzaingoa, Hondarribiko osasun etxeko profesional taldea, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeetako zuzendariak, Hondarribiko ikastetxeetako eskola kontseilu eta AMPAS elkarteetako ordezkariak, eskualdeko formazio erakunde eta enplegua emateko bulegoak, auzo elkarteak, gazte elkarteak, Hondarribiko kirol eta kultur elkarteak, eta beren borondatez udal diagnostiko komunitarioa zehazterakoan parte hartu nahi izan duten hiritar guztiak.

Prozesu hau guztia batez ere Hondarribiko Udal Prebentzio Komunitario zerbitzuak gidatu du, berak baitu Plan hau burutzeko enkargua. Zentzu horretan zerbitzuko profesional guztiak *mahai komunitarioen* garapen eta diseinuan buru belarri jardun eta bertan parte hartu dute, zerbitzu horren programetako erabiltzaileez gain.

Bestetik, diagnostiko hori egiterakoan drogamenpeketasuna lantzen eskarmentu handia duten adituak izan ditugu (Jaume Funes – psikologo eta hezitzailea katalana- eta Juan Martin Perez – Mexico DF El Caracol ACKo gizarte hezitzailea), eta hauek parte hartzaile guztiak bertan izan direlarik zenbait bileratan prozesu osoan ikuspuntu berriak sartzeko aukera eman digute.

Behin saioak bukatuta *mahai komunitarioetan* egindako ekarpen, proposamen eta Hondarribiko Udal Prebentzio Komunitarioaren Zerbitzuak zehaztutako ekimen lerro guztiak kontuan harturik zerbitzu horren ekipoak **Drogamenpeketasunaren Udal Prebentzio Planaren Proposamena 2008-2012** idatzi du.

ARAU ESPARRUA

18/1998 LEGEA, EKAINERAN 25EKOA, DROGAMENPEKOTASUNEN ARLOKO AURREZAINITZA, LAGUNTZA ETA GIZARATERATZEARI BURUZKOA.

1998ko ekainean 18/1998 legea onartu zen, drogamenpekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarateratzeari buruzkoa, 1998tik indarrean zegoen aurrekoa ordezkatzuz. Lege honek drogamenpekotasunaren aurrean EAEan gizarte eta erakunde ekimena arautzen duen arau, filosofia eta antolamendu esparrua ezartzen du.

Arrazoen azalpenean adierazita dago Lege honekin euskal gizartera drogamenpekotasuna ulertzeko eta horri ekiteko eredu bat eraman nahi dela, estrategia komunitarioa dei diezaioketuna, arazoari erantzun oso eta arautua eman dakion gidatuko duena eta drogen arazoari konponbideak bilatu nahian hiritarren parte hartzea eta ekintza planifikazioa ezinbestekotzat joko duena.

Lege horrek honako helburua du, 1. Artikuluan dioen bezala, *“EAEri estatutuz eta bere lurralde eremuan dagozkion eskumenetan, drogamenpekotasuna aurrezaintzeko zenbait ekimen burutzeko eta drogazaleei lagundu eta gizarateratzea bideratzea”*

Zentzu horretan 2.2 Artikuluan kontzeptu hauek azaltzen ditu, prebentzioa *“drogak desegoki hartzea bideratuko lituzketen gizarte, kultura eta bizitza eragileak aldatuko lituzkeen ekimenen multzoa da”*, era berean ekimen horien helburua zein den adierazten duelarik :

- 1.- Droga eskaera eta kontsumoa gutxitzea
- 2.- Gizartean dagoen droga eskaintza mugatu eta txikitzea
- 3.- Bere kontsumoak lekarkeen ondorioak murriztea
- 4.- Drogak kontsumitzeko arriskua sor lezaketzen gizarte ekonomia eta lan arrazoia azaltzea, eta era berean drogamenpekotasunaren eragin soziala murriztea, ekimen proposamen berriak proposatuz eta gure komunitateko alor abulenetan indar berezia jarri.

Laguntzari buruz, kalteen gutxitzeari buruz hitz egiten du, alegia *“Drogen kontsumoak edo horrekin zerikusia duten zenbait patologiak sor ditzaketzen eragin negatiboak gutxitzeko ekimen estrategiak”* eta arriskuak gutxitzeari buruz, alegia *“Drogen erabilerak sortzen dituen eragin larriak areagotu ditzaketzen jokaerak aldatzeko ekimen estrategiak”*, eta azkenik tarteko helburuak dituzten programei buruz, alegia *“kontsumitzaileru kronikoaren bizirik kalitatea eta osasuna hobetzeko sendabide prozesuan ekiteko laguntzak”*.

Azkenik, gizarateratzea definitzen du esanez *“gizabanakoa hiritar autonomo eta arduratsu gisa bere obiko inguruan sartzeko eta bertan gizarateratzeko norberaren gaitasunak berreskuratzea, drogazaleak onartuak izan daitezkeen gizarte mailako beharrezkoak diren aldaketak egin behar direlarik”*.

Bestetik Lege horren 3. Artikuluak azaltzen du zein diren honen helburu orokorrak:

- a) Jendeari drogei buruzko argibideak egoki ematea.
- b) Hiritarrak osasunerako onuragarriak diren obiturak sortzeko bektza, heziketa programa hauetan bereziki gazteak hartuko direlarik kontuan.
Drogamenpekotasuna aurrezaintzeko profesionalei formazioa ematea
Mendetasuna sor lezaketzen sustantzien kontsumoan eragiten duten gizarte egoeretan ekitea, drogen kontsumoan eta bere ondorioetan gizon eta emakumei eragiten dieten eragileak bereziki kontuan hartuz.
- e) Drogamenpekotasuna aurrezaintzeko politikak eraginkorrak izan daitezkeen beharrezkoak diren prebentzio komunitarioaren programen garapena eta ezarpena sustatzea.
- f) Drogen kontsumotik datozen osasun kontsumitzaileentzako nabiz besterentzako kalteak ekiditeko neurriak hartzea.
- g) Gizartean drogen salmenta eta sustapena mugatu eta kentzea.
- h) Administrazio publikoan eta arazo honekin zerikusia duten gizarte taldeetan drogen kontsumoa prebenitzeko ekimenak koordinatu eta sustatzea.

Prebentzio komunitarioari buruz 4.2 Artikuluan ezarria du zein den drogamenpekotasuna prebenitzeko hartu beharreko neurriak hartzerakoan Udaletxean eskumena, hain zuzen ere:

- a) *Drogamenpekotasun prebentzio komunitarioako programen garapena sustatuko dute.*
- b) *Komunitateko alorretan, alegia ikastetxeetan, gazte, kultur eta kirol elkarteetan, talde profesionaletan eta lan esparruetan, Drogamenpekotasun Planetik datozen ekimen eta prebentzio programen aplikazioa sustatu, koordinatu eta burutuko dute.*
- c) *Drogamenpekotasunean Lankidetzara sustatuko dute gizarte ekimenarekin eta borondatezko lanen bidez.*

Dauden eskumenei buruz Lege horrek arazoari erantzuna emateko Euskal Administrazioen eskumenak ezartzen ditu. Horrela, bere 36.4 Artikuluan azaltzen du “ *Udalen eskumena da, 37.1 Artikuluan araututako Drogamenpekotasun Planean dauden aginduei jarraituz banaka edo partzuzergoka Drogamenpekotasunen Tokiko Plana garatu eta burutzea*”

Era berean, 37.2 artikulua ezarria du “ *36.4 artikuluan araututako Drogamenpekotasunen Tokiko Plana hauxe izango dela: Drogamenpekotasunen alorrari buruzko gizarte ekimeneko egiturek abolkatu, planifikatu koordinatu, eta egituratutako ekimen eta programa multzoa*”.

91/1997 DEKRETUA, APIRILAREN 22KOA, EUSKAL HERRIKO GIZARTE ZERBITZUEN ALORREAN EKIMENAK BURUTZEA ARAUTZEN DUENA.

Dekretuan Drogamenpekotasunen Tokiko Plana nola burutuko den arautzen da, 26.1 Artikuluan honela definitzen duelarik: “*Drogamenpekotasunen alorrari buruzkoa den eta dagokion Tokiko Organoak onarturiko agirian formalizatuak diren gizarte ekimeneko egiturek abolkatu, planifikatu koordinatu, eta egituratutako ekimen eta programa multzoa, hain zuzen ere bere eskumen alorrean Tokiko Administrazioaren borondatea islatzen dutenak*”.

Bestetik, artikulua horren 3. atalean azaltzen du aipaturiko Drogamenpekotasun Plana egiteko zein alor hartu beharko diren kontuan, hain zuzen ere:

- a) *Toki erakundearen alorrean drogamenpekotasun arazoaren analisi orokorra.*
- b) *Udal Esparruetako ekarpenen planifikazioa.*
- c) *Plana kudeatzeko koordinazio estrategiak eta*
- d) *Berau burutzean hiritarrek parte hartzeko mekanismoak*

TEORIA ESPARRUA

Eredu Teorikoak
Ekiteko Esparruak

Eredu Teorikoak

Drogamenpeketasunen Prebentzio Komunitarioaren Udal Plan hau zenbait eredu dituen esparru teoriko batean dago. Gure ustez komunitatean ekiteko, esparru teorikoek kasu zehatzak teoria bihur ditzagun ahalbideratuko duten kontzeptu aberatsagoetara eramateko bidea irekiko dute, hau da abstrakzio eta kontzeptu mailara eramateko bidea. Beharrezkoa da ondorioz ekimen komunitarioa irekiak eta elkarreragileak diren eredu teorikoetatik kontzeptu mailara eramatea, hauek komunitateak ere formula ditzan ahalbideratuko dutelarik, berau osatzen duten kide guztiakin hausnarketa guneak sortuz. Bestetik funtsezkoa da ekimenerako teoria ona den aldetik egunerokotasunean ezarri ahal izatea, eragile komunitarioentzat erabilgarria izan daitekeelarik.

EREDU EKOLOGIKO-SISTEMIKOA

Eredu honek proposatzen duen ideiarekin arabera gizakiaren garapena, garatzeko bidean dagoen gizakia eta bere inguru hurbileko ezaugarri aldakorrak elkarri pixkanaka egokitzea da. Beraz, elkarren arteko egokitzea da, eta garatzen ari den pertsona parte hartzen ari deneko sistemetan ezartzen diren harremanek eragiten duten prozesu jarraia bidez gertatzen da.

Horrela, batak bestea bere baitan duen egitura multzo sailkatu bat da, gizakiaren garapenean zeharka edo zuzenean eragiten duten lau maila edo sistema ezartzen direlarik.

Zentzu horretan, sistemarik hurbilena, garatzen ari den gizakiak jarduten duen inguruan dituen jokaera, rol eta harremanei dagokie, inguruak gizarteratzeko lehen guneak direlarik, adibidez familia, eskola eta berdinen arteko taldea. Bigarren mailan daude gizakiak jarduten dueneko bi ingururen edo gehiagoren arteko elkar harremanak. Aipaturiko ingurune bakoitza (familia, eskola/lana, lagunak...) zuzenean gizakiarengan eta elkarren artean eragiten duten aldaera eta eragileetan sailka daiteke.

Hirugarren mailak bere baitan gizarte erakunde eta egiturak ditu, formalak nahiz ez formalak, gizakiarengandik at direnak eta ez dutenak berau parte hartzaile aktibo gisa hartzen, baina bere garapenean eragin dezaketen zenbait gertaera izan ditzaketenak. Azkenik, mailarik urrunena maila txikiagoko sistemetan zeharka eragin dezaketen egitura makro-sozial, politiko eta kulturalekin dago harremanetan.

Kontuan izanik sistema hauek guztiak elkarren eraginez gizaki guztien bizitzan eragiten dutela, beharrezkoa da guztiak kontuan hartzea drogamenpeketasunari ekitean. Oinarritzkoa da sistema hauetako bakoitzean sumaturiko beharretan ekitea, denak ukipenean daudela jakinik, ez baitira isolaturiko sistemak, horrenbestez batean gertatzen denak besteetan zuzenean edo zeharka eragin dezakeelarik.

Beraz, ekimen komunitarioan drogamenpeketasuna ikuspuntu horretatik ikusten dugu, gizakia nahiz bera txertatua den giroak landu behar dira, azken finean gizabanakoa lantzea garrantzizkoa izanik era berean familia, eskola, lan giroa etab. kontuan hartzeak dira.

OSASUNA HEZITZEKO METODOA

Azken urte hauetan Osasunerako Heziketa ulertzeko modua asko aldatu da, bai ideologia bai metodologia aldetik. Hau da, lehen osasuna gaixotasun eza bazen, orain osasuna gorputz, emozio eta gizarte mailan ondo egotea da.

Osasunerako Heziketaren helburua gizakien osasuna hobetzea da, hau da, aurrezaintza landu eta osasuna sustatzea. Aurrezaintzaren aldetik, gizakiari norik bere osasun arazoak saihesteko arrisku egoerak menderatu edo ondorioak saihesteko gaitasuna emanez, eta osasun sustapenaren aldetik herriari bizitza egoera osasuntsuagoak eramateko gaitasuna emanez. Zentzu horretan osasuna sustatzeak maila ezberdinetan norberaren borondatez jokaera aldaketak egitea eragingo du, kontuan izanik ekintza gizakiaren nahiz bere inguruaren baitan dagoela.

Osasunerako Aldaketak gizakiaren formazioa eskatzen du, horren bidez talde eta norberaren osasuna sustatzeko oinarrizko jakituria, jokaera eta ohiturak har ditzan. Hau da, komunitateko kide guztiak arduradun egitea, talde osoak pixkanaka-pixkanaka bizimodu osasungarriagoa eta osasunerako jokaera egokiagoak izan ditzan.

Zentzu horretan norberaren baliabide eta gaitasunak lantzea bezain garrantzitsua da talde mailako ekintzak sustatzea. Hau da, gizabanakoak beren baliabideak lantzea eta taldea beharrak neurtzea eta lehenetsunak ezartzera eramanez, inguru osasungarriak sortuz eta antzemandakoaren arabera osasun zerbitzuak horretara bideratuz.

Abiapuntu dugun osasunari buruzko ikuspuntua, gaur egun garatzen ari den osasuna era autonomoan, osasungarrian, eta solidarioan ikusteko modua da. Zentzu horretan ezinbestekoa da oinarrizko osasun zaintzak eta zenbait eremutako profesionalen ardurak batzea, gizaki guztiak osasun arazoak konpontzeko laguntza eta bizimodu osasungarriagoak lortzeko osasun-hezkuntza bateratua eginez.

Ildo honetan diharduen komunitatearen helburua osasuna balio handiko balore gisa sustatzea da, bere inguruko ongizate fisiko eta psikikorako osasungarriak diren bizimodu eta ohiturak sustatuz. Azken finean, jakinarazi behar da osasuna guztien lana dela, eta osasuna guztion ardura dela, ezin baita gizaki osasungarriak gizarte ez osasungarrian izan.

GIZARTE GAITASUN EREDUA

Gizarte gaitasunak ezaguera eta afektibitate arloak ditu bere baitan, eta hauek komunitatean onesten diren balio zentzuzkoak ekartzen dituzte. Gaitasun jokaera hauek egokitzea, norik bere burua landu eta maitatzea eta aldi berean besteenean eragitea sortzen dute. Azken finean gizarte gaitasunak ongizatea sortzen dio gizabanakoari, nortasunaren garapen osasungarria eta ingurune ezberdinetara egokitzeko ahalmena ekarriz.

Eredu honek osasuna garatze alderako eta dauden gaitasunak nabarmentze alderako ikuspuntuan jartzen du indarra, eta helburua, ezaguera-garapena, jokaera eta gizarte-emozio trebetasunak sustatzea da, horren bidez errazago egokitzen diren jokaerak sortu eta bizitzako arazoei aurre egiteko gaitasuna indartzen direlarik.

Gaitasuna ez da jaiotzatik ezarria den ezaugarri irmoa, beraz gizaki guztiok garatu beharreko gauza da. Gizartean jarduteko banakako gaitasuna drogazaletasunaren aurrean babes tresna da zalantzarik gabe, horregatik ezinbestekoa da gizabanakoa lantzea arrisku egoeren aurrean sendoago eta eraginkorragoa izan dadin.

Kontuan izanik arrisku eragile eta garapen egoera larrien aurrean ahulezia izateak giza, eta ekonomi baliabideen gaitasun eta ahalmenarekin zerikusia duela, ikas prozesuak eta baliabide horietarako garapen baldintzatuak egoera ezberdinak sortzen dituzte, eta hauetan arriskua une kritikoetan azaltzen da. Beraz ildo honetan gizarte gaitasuna oinarrizkoa da drogamenpekotasunari egoki aurre egiteko.

Zentzu honetan ekin behar da bai gaitasunetan bai egokitzeko eta aurre egiteko baliabideetan, komunitateko kide guztiak berez dituzten harremanetarako eta ingurura begirako gaitasunak indartuz.

GIZARTE GAITASUN EREDUA

Gizarte garapena eta nortasun garapena gaur egun elkarren osagarri ikusten dira. Zentzu horretan gizartera begirako gaitasuna gizakiarengan sortzen den eta bizitza osoan zehar garatzen den ezaugarria da, eta gizarteratzearen bidez ingurune kultural zehatzetara egokitzeko moduaren arabera umeek, gazteek eta helduek sinesmen, balore eta jokaerak eskuratzen ditugu. Horrela, gizarte garapenak eta nortasunaren garapenak uztarturik egiten dute aurrera, gizarte eta kultura inguruaren eta biologi eraginaren arteko ondorioa izanik.

Gizarte garapenari buruzko teoriak diotenez gizakiaren jokaera erabat lotua da bere bizitzan garrantzizkoenak diren taldeetan garatzen dituen loturekin, hau da familia, lagun talde eta beren komunitatekoekin.

Teori eredu honek jakin nahi du nola arrisku eta babes eragileek eragiten dioten bai elkarri bai gizakien garapen prozesuari. Eredu honek eragile horiek neurtuz kide ahulenak aurkitzeko aukera ematen du. Zentzu horretan arrisku egoerak murriztu eta babes egoerak indartzen dituen laguntzak erabat lagunduko dio drogazaletasunaren aurrean bere burua txertatu eta baliabideak izateko.

Horrela, gizakien gizarte garapena indartzeko drogazaletasunari aurre egiteko proposamenak elkarreragina, gizarte gaitasuna eta gizabanakoen eta gizarte trebetasunak errazteko tresna behar dute izan.

GIZAKIEN ARTEKO KOMUNIKAZIOAREN EREDU ELKARRERAGILEA EDO PRAGMATIKOA.

Eredu hau batez ere gizakien arteko elkarreraginaren ikerketan oinarritzen da. Zentzu horretan beti sistema bizi eta irekiak osatzen dituztenei buruz ari gara. Taldeak osatzen dituzten sistema irekien arteko trukea batez ere informazioa da, beraz, gizakien arteko elkarreragina eta komunikazioaren arteko ikerketa izango dugu gizakien komunikazioaren eredu elkarreragilea edo pragmatikoaren kontzeptu oinarria.

Abiapuntua da jokaera guztiak komunikazioa direla. Nola edo hala gizakiak komunikatu egiten gara beti eta ezinezkoa da ez hala egitea, isilik egonda ere, beti zerbait esan nahi baitugu. Ondorioz, jokaera guztiak komunikazioa dira eta komunikazioak beti argibideak eman eta jokaerak sortzen ditu.

Ondorioz, komunikazioa gizartean jarduteko gaitasunaren garapena ahalbideratzen duen tresna da. Zentzu horretan, gizakiek gaitasun guztiak garatzea nahi badugu oinarritzkoa da jakitea nola garatzen den haien arteko elkarreragina. Gizakiak inguruarekin komunikatzen garen heinean bertan gertatzen diren aldaketak ezagut ditzakegu, eta ondorioz, hobeto egokitzeko eta gizarterako garapena sendotzeko prestatzen gara.

Komunikazioa ikuspuntu ezberdinetatik azter daiteke. Argi denez gure kasuan komunikazioaren alderdi pragmatikoa interesatzen zaigu, batez ere nola eragiten duen gizaki baten jokaerak bestearengan komunikatzen ari direnean. Jokaerari buruzko komunikazio ikuspuntuak ez ditu gizaki isolatuak aztertzen, gizakien arteko harremanean beha daitezkeen adierazpenak baizik.

Bestetik, gizakien komunikazioaren eredu pragmatikoaren kontzeptu oinarriak osasun kontzeptuaren gainean hausnartzera eramaten gaitu. Zentzu horretan drogazaletasuna dela eta gizakiak hauekiko duen harremana ezagutzeak berarekin komunikatzea eskatzen du, eta horri esker, jakin ahal izango dugu zein zailtasun duen bere osasunari buruzko aldaketari erantzuteko. Gure ustez, gainera, komunikazioa hobetuta informazio hutsa heziketa bihurtuko dugu, eta ziurrenik heziketak gizakien haien osasunarekiko ardura sendotu egingo du.

Ondorioz, gizakiaren jokaera zenbait sistematan txertatzen badugu, sistema horiek elkarreraginean izanik komunikazioa oinarritzkoa delarik, ikusten dugu eredu teoriko hau ezin hobea dela komunitatean lan egiteko.

Ekiteko Esparruak

Drogamenpekotasunen Prebentzio Komunitarioaren Udal Plana zenbait alorretan ekinez burutzen da, datozen hauetan hain zuzen ere. Era berean “Plana garatzeko interes orokorreko beste zenbait alderdi” ere kontuan hartzen dira, Plan honen lorpenetarako zenbait gaitan duten garrantziagatik ez direlarik alor zehatz bakar batekoak garrantzizkoak deritzogunak.

FAMILIA ALORRA

Familia da gizakien lehen gizarteratzeko gunea, eta bertan gizakiaren garapen osasungarrirako ezinbestekoak diren baloreak, jokaerak eta gaitasunak irakasten dira.

Alor honetan burutzen diren ekintzak familiaren gizarte eta heziketa alderdiak sendotzera bideratu behar dira, berarengan indar berezia jarri behar delarik ume eta nerabeentzako eredu den aldetik.

Zentzu horretan garrantzi berezia du ama eta aitak beren zereginetan indartzea eta haien ardura eta lanak burutzeko beharrezkoak diren laguntzak aurkitzeko guneetan haien parte hartzea erraztea. Planak, zentzu horretan, familiekin harremanetan dauden eragile komunitarioek eskaintako taldeetan gurasoek haien beharrei buruzko erantzunak izatea erraztuko du.

Edozein programa abian jartzerakoan berau indartu, sendotu eta sustatzeko ardura duten zerbitzuek irizpide komunak izan beharko dituzte. Ekintza hauen bidez gurasoei seme-alaben heziketa prozesuak bideratzeko tresnak erraztu beharko zaizkie, baita eguneroko jardunean sortzen diren arazoek konponbidea ere.

Era berean, familiaren bizitzan gertatzen diren arazoetan konponbidean lagundu eta aholkatuko dieten profesionalak izango dituzte.

Ildo honetan, familia alorrean egindako programak familia helburu duten gainontzeko sistemen osagarri izango dira, besteak beste gizarte eta osasun zerbitzuak, aisia, kultura, kirola, etab.

ESKOLA EREMUA

Heziketarako eskubideak umeen eskolaratzea ziurtatzen du. Horrek baloreak, jokaerak eta gaitasunak adierazterakoan garrantzi handia duen inguru batean ume eta nerabeekin lan egitea ahalbideratzen du.

Osasunerako heziketak, eskola alorrean zeharkako lerroa izanik, drogamenpekotasunen prebentzioaren alorrean proposaturiko ekintzek laguntza eta aholkua izango dute oinarri. Zentzu horretan oinarritzkoa da eskola osoa ekintza horietan sartzea, hau da irakasleak, gurasoak (aitak nahiz amak), eta ikastetxean egindako heziketa prozesu guztietan sartuak diren eragile guztiak, besteak beste eskola-kirola, jatordu garaiko eskola kanpoko ekintzak, eskola jangelako uneak...

Oso garrantzitsua da eragile hauek guztiek egindako programa guztietan parte hartzea, horiek gidatuz ahal den neurrian, eta eredu diren aldetik haien eginkizunari ahalik eta etekinik handiena aterata .

Ikuspegi honetan heldua umeentzat atxikimendu eredu diren guraso, irakasle, jangela begiraleek... garrantzi berezia hartzen duten adin txikietan eredu da, eta beraien ekintza eta jokaerak balore transmisio eta autoestimazioaren garapenean eragile zuzena dira.

Horregatik lehenetsun osoa du haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan aurrezaintzan jardutea, era orokor eta zabalean, eskola komunitate osoaren bidez. Ezin dugu ahaztu egunero umeengandik hurbil izanik ikastetxea arazoak antzemateko gune bihurtzen dela, zenbaitetan arazo batzuei konponbide berezia edo talde adituen bidezko laguntza eman beharko zaielarik.

Bigarren Hezkuntzan Osasunerako Heziketa programek garrantzi berezia hartzen dute, kontuan izanik garai honetan drogek sortzen duten kezka, bai irakasleen artean, bai familian. Ikastetxean prebentzioan adituak direnek, irakasleekin eta zuzendaritza taldearekin batera komunikazio sistemak indartzen eta Udaleko gazteen errealitatea ezagutzen laguntzen dute.

Planak eskolarekin batera sustantziak eta arazoak sortzen dituzten gaien kontsumoan jarriko du arreta, eta horrek bidea emango du programak bideratuak direneko pertsonengandik hurbil egonik aurrezaintza berezia duten programak hobeto garatzeko. Zentzu horretan Planaren lehentasuna da eskolaren bitartez arrisku eragileak aldi oro aurkituta ahulenak diren pertsonak antzematea, horretarako koordinaturiko ebaluazio sistema sortuta.

Garrantzitsua da irakasleen beharrei erantzutea eta materiala, formazioa eta aholkularitza eskaintzea, horren bidez eguneratutako argibide objektibo eta osoekin gaia lantzeko.

KOMUNITATEAREN ALORRA

Plan hau garatzeko “komunitario” hitzaren esanahi pragmatiko eta erabilgarria behar dugu Ikuspuntu honetan oinarrizko ardatzetariko bat udaleko gizarte eremua da, hau da kirol talde eta klubak, kultur taldeak, gobernuz kanpoko erakundeak, eta abar.

Eremu honetako ekintzak gizarte sendotzera eta komunitatea elkarbizitza eredu eta parte hartzeko esparru gisa ikustera eramango gaitu, hau da, berau osatzen duten gizakientzako eredu gune ikustera.

Planak garrantzi handia ematen dio elkarteak, klubak eta erakundeak drogamenpekotasunaren prebentzio komunitarioan eragile zuzenak direneko ikuspuntuari, eta komunitateko berezko gidariek emandako prebentzio mezuak komunitatera zabaltzeko beharra ezinbestekoa da.

Beharrezkoa eta ona da komunitatean gune publikoak sustatzeko programak izatea. Hauek harremanak erraztuko dituzte eta elkarbizitza osasungarrirako erdua garatuko dute, gizartean diharduten bizilagunek parte hartzea erraztuko dutelarik.

OSASUN ALORRA

Osasun alorra berez osasunerako heziketa lantzeko ekintzak garatu eta bizimodu osasungarriak sustatzeko berezko esparrua da. Plan honen helburua, osasunerako heziketa, zenbait programa eta ekintzaren bidez talde jakin batzuei zuzendu beharreko baliabidea dela jakinaraztea da.

Zentzu honetan garrantzi handia du osasun arloko profesionalen arteko harremana sendotzeak eta irizpide berak dituzten adituen sarea osatzeak, hiru mailatan bederen: bizimodu osasungarriak sustatzen, osasunerako heziketan programak zehazten, eta arrisku eragileak antzematen, gizarte eta heziketa mailakoak diren beste zenbait sistemaren bidez prebentzio bereziko baliabideetan ahulenak diren gizakiei buruzko ebaluazio programak egiteko.

Garrantzi handia du eguneratutako informazio eta tresnak sortu eta elkarren artean trukatzuz osasun alorreko adituekin batera lan egiteak, eguneroko lanetan prebentzio lana burutzeko bidea emateko, eta era beran esparru honek dituen gaitasunak sendotzeak drogak kontsumitzeak eta bere ondorioek sortzen dituzten arazoak garaiz antzemateko.

UDAL ZERBITZUEN ALORRA

Udal zerbitzu guztiek hartu behar dute bere baitan plana, eta bakoitzari dagokion eremua zehaztu behar da. Egia da, egia denez, drogamenpekotasunaren aurrezaintzan bereziki Gazteriak, Gizarte Zerbitzuek, Kirolak, Hezkuntzak, Kulturak eta Udaltzainek dutela berebiziko garrantzia

Udal mailako programek prebentzioaren zeharkako ikuspegia izan behar dute, berau burutzea erraztuko duten ekintza eta baliabideak zehaztuko dituztelarik. Zentzu horretan Prebentzio Komunitarioaren Udal Plana udal esparruko bereizketa eta osagarritasunean oinarritua da, beraz hortxe ditugu:

- batetik Udalaren Zerbitzu Komunitarioari dagozkion eta beronek berak gidatu behar dituen ekintza eta baliabideak.
- Bestetik bere baliabideen bidez udal departamentuek udalean prebentziorako baliabideak zabaldu eta egoki erabiltzeko hartzen dituzten konpromisoak, horretarako Prebentzio Komunitarioa Udal zerbitzuaren laguntza eta aholkua izango dutelarik.

Plana garatzeko interes orokorreko beste zenbait alderdi

Gainera planak beste zenbait alderdi ditu bere baitan.

Lurralde mailako Zerbitzuak: Herriaren tamainak lan komunitarioa garatzeko aukera ematen du, baina zerbitzuetan gabekia dago. Zentzu honetan Planak kontuan hartzekoa da bere estrategiak ezartzerakoan.

Komunikazioa eta Prebentzioa: Bertako komunikabideekin prebentzioa lantzea giltzarria izango da azken Plana garatzerakoan. Prebentzio politikak komunikazio politika behar du, hau zeharkakoa eta orokorra den baliabidea izanik Planaren esparru guztietan.

Komunikatzeko eta Hedatzeko estrategiak: Tokiko Planaren edozein ekintza komunitariok irizpide ona izateko komunikazio estrategia batean oinarritu beharra du. Gure ekintzek batez ere herriko eta eskualdeko komunikabideetan izan behar dute eragina.

Prebentzioa eta Generoa: Kontuan izanik gizonen eta emakumeen ez dutela kontsumo ereduen aurrean berdinean erantzuten, prebentzio erantzun eta estrategiek alde horri begiratu behar diote.

Emakumeen kontsumoak eta horren ondorio nahiz arrazoiak askotan bat datoz gizonenekin, baina badira era berean aski aztertutako ez diren ezaugarri bereizgarriak”.

Azken Planetan jaso den bezala – Tokikoetan nahiz Autonomikoetan – iritzi eta estrategia honek fenomenoaren analisia du oinarri eta *“drogak eta mendetasuna sexua, eta emakume eta gizonen behar, egoera eta baldintza ezberdinak direla”* eta *“ikuspuntu hori modu sistematikoan kontuan izanik ekintza, programa analisi planifikazio burutze eta ebaluazio guztietan”*

DIAGNOSTIKOA

Azterketa Sozio-Demografikoa eta Ekipamenduak

AMIA analisia

Drogen Kontsumoaren Analisia

Azterketa Sozio-Demografikoa eta Ekipamenduak


Udal jakin batentzat Drogamenpekotasunei buruzko tokiko Plan bat burutzerakoan oinarrizkoa da beronen ezaugarriak ezagutzea. Beharrezkoa da beraz jakitea zein komunitatetan eragingo den, Plan hori eraginkorra eta egiazkoa izango bada. Ondoren datorren analisia udaleko demografia, gizarte, kultura, heziketa eta osasunari buruzko datuak azaltzen ditu, baita Hondarribiak dituen ekipamenduak ere.

DATU DEMOGRAFIKOAK


Hondarribiko Biztanleak:

Iturria: Gipuzkoanet / Data: 2007-12-31

Adinen araberako Sailkapena



Sexuaren araberako sailkapena




Hondarribiak 16.328 biztanle ditu, 8.214 gizonezko eta 8.114 emakumezko, beraz antzekoa da gizonen eta emakumeen kopurua (%50,3 eta %49,7 hurrenez hurren).

Biztanleriaren %29k 30 urte baino gutxiago ditu (4.740 biztanlek), eta %17,4k 65 urte baino gehiago ditu (2.844 biztanlek). Beraz, biztanleriaren erdia baino gehiago 30 eta 65 urte bitartean dago, hau da guztien %53,6 (8.762 bizilagun).

Hondarribiko Biztanle kopurua eta Biztanle dentsitatea:

Iturria: Hondarribiko Udala / Data: 2007-12-31

Erroldaren Eboluzioa: Urteen Arabera
Evolución del Padrón: Por años




Hondarribiko Udalak 28,8 km² ko azalera du gutxi gorabehera. Zentzu horretan argi dago biztanleen kopurua hazi ahala populazioaren dentsitateak ere gora egin duela. Azken 50 urteetan Hondarribiak 8.185 biztanle gehiago ditu, beraz herriko biztanleen kopurua bikoiztu egin da tarte horretan.

60. hamarkadan populazioaren dentsitatea km² ko 283,73 biztanlekoa zen, orain dela hamar urte dentsitate horrek gora egin zuen 505, 1 biztanle km² ko izan zuelarik, eta gaur egun gutxi gorabehera km² ko 567,6 biztanlekoa da.

Hondarribiko Biztanleak Jaioterriaren arabera:

Iturria: Gipuzkoanet / Data: 2007-12-31





Oro har Hondarribian 7.011 biztanle dira bertan jaiotak, hau da %42.9, eta 9.317 kanpoan jaiotakoak, beraz %57,1. Ikus daitekeenez, erdia baino gehiago dira kanpoan jaiotakoak baina horien artean Bidasoa Eskualdean jaiotakoen kopurua handia da, gehienbat Irunen jaiotakoena, %22.2 alegia.

Bestetik Hondarribian jaiotako biztanleen kopururik handiena 30 urtetik beherakoa da, adin

horretatik gora gainontzeko herrietan jaiotakoak gehiago baitira bertan jaiotakoak baino .

Hondarribiko Biztanleak Auzoka:

Iturria: Hondarribiko Udala / Data: 2007-12-31




Biztanlerik gehienak Akartegin daude, hau da biztanleriaren %33, baita Portuan ere, biztanleriaren %15 alegia. Bi auzo hauen artean dago ia Hondarribiko biztanleriaren erdia.

Kalea, Jaitzubia eta Amute-kosta auzoetako bakoitzak biztanleriaren %10 du, eta Puntalea eta Zimizarga auzoetako bakoitzak biztanleriaren %7. Biztanle gutxien dituzten auzoak Mendelu, Arkolla eta Gornutz-Montaña dira, biztanleriaren %5, %2 eta %1 hurrenez hurren dutelarik.

Erdi aldeko auzoetako biztanleriaren kopurua finkoagoa da, kanpoaldekoetan hedapena handiagoa izan baita. Hauetan gehiago eraiki da, etxebizitza pribatuak nahiz babes ofizialekoak, eta horrek eragin du lehen biztanle kopuru txikiagoa zuten auzoek garapen eta hazkundea nozitzea.

Hondarribiko Biztanleen Ikasketa Maila:

Iturria: Gipuzkoanet / Data: 2007-12-31



Formazio maila berdintsua dute gizon eta nahiz emakumeek. Ia populazioaren erdiak Lehen mailako Hezkuntza du, hau da %48k. Bestetik, populazioaren %20k Bigarren Hezkuntza egina du, eta ikasketa ertaina eta goi mailakoak %8k eta %6k hurrenez hurren. Azkenik, populazioaren %12k, gehienbat gizonek, Lanbide Heziketa ikasketak dituzte. Alfabetatu gabeen kopurua %0,8koa besterik ez da.

Adinari dagokionez esan behar da ikasteko adina duten ia ume eta gazte gehienak ikastetxeetan lehenengo eta bigarren hezkuntzan dihardutela. Normala denez lanbide heziketa, eta ikasketa ertain eta gorenak dituztenak 20 eta 65 urte bitartekoak dira. Alfabetatu gabek eta titulurik gabek 65 urtetik gorakoan artean daude.

Langabezia:

Iturria: Gipuzkoanet / Data: 2007-12-31

2007 urtean langabeziaren bataz bestekoa Hondarribian 3.493 lagunekoa izan da. Honi buruz zehaztu behar da zerbitzuen alorrak duela langabetuen kopururik handiena bere baitan, hau da erregistratutako langabeziaren %75 gutxi gorabehera. Beste muturrean dago Nekazaritza eta Arrantza alorretakoa, %1 alegia. Lan eskaera handitu egiten da alor honetan neguko hilabeteetan (azaroa, abendua eta urtarrilean), arrantza alorreko langabezi garaian hain zuzen ere.

Ikasketa mailari dagokionez erregistraturiko langabetuen %70ek bigarren hezkuntzako ikasketak dituzte eta lanbide heziketa dutenen artean erregistraturiko langabezia %0.90koa besterik ez da.

20 urtetik behera dituzten gazteak dira langabezi kopuru txikiena dutena, gehienak ikasten ari baitira. Ekainean pixka bat handitzen da, ikasketak bukatu dituztenez edo udara begira lana aurkitu nahi dutenez garai horretan lan eskaerak izaten baitira. Bestetik, 25 eta 59 urte bitartekoa da langabetu kopururik handiena duen adin tartea, %86 dira eta.

GIZARTE ETA DEMOGRAFIA MAILAKO EKIPAMENDUA

HEZIKETA EKIPAMENDUA

Iturria: Hondarribiko Udala / data: 2008

HAUR HEZIKETA							
	2 urte	1.	2.	3.	Guztira	D eredia	B eredia
CEP TALAIA LHI	103	96	97	111	407	407	
AMA GUADALUPEKOA	40	50	50	50	190	95	95
SANJOSE	30	26	28	25	109	109	
	173	172	175	186	706	611	95

LEHEN HEZKUNTZA									
	1.	2.	3.	4.	5.	6.	Guztira	D eredia	B eredia
CEP TALAIA LHI	79	89	80	81	86	76	491	491	
AMA GUADALUPEKOA	50	49	50	50	51	53	303		302
SANJOSE	25	28	26	29	25	22	155	53	102
	154	166	156	160	162	151	949	544	405

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA							
	1.	2.	3.	4.	Guztira	D eredia	B eredia
IES TALAIA BHI	92	72	66	48	278	278	
AMA GUADALUPEKOA	51	52	63	53	219		219
SANJOSE	23	25	17	15	80		80
	166	149	146	116	577	278	299

L.O.G.S.E. BATXILERGOAK					
	1.	2.	Guztira	D eredia	B eredia
IES TALAIA BHI	49	46	95	95	
AMA GUADALUPEKOA	50	43	93		93
	99	59	187		

Araututako hezkuntza duten ikastetxeen datuak ikasle kopuru eta adinaren arabera (2008-2009 ikasturtea)

Hezkuntza ziklo guztiei buruzko 2008-2009 eskola erroldaren datuak aztertuz gero (haur hezkuntza, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza eta batxilerra) ikus daiteke 2.372 ume eta gazte daudela herriko ikastetxeetan matriculatuak.

Talaia L.H.I. eta, Talaia B.H.I. ikastetxeetan 1.244 ikasle daude, hau da %52,5, Hondarribiko ikasleen erdia baino gehiago. Ama Guadalupekoak 793 ikasle ditu, ikasleen %33,5 eta azkenik, San Josek ikaslerik gutxienak ditu, 336, ikasleen %14 alegia.

Talaia L.H.I. eta, Talaia B.H.I. ikastetxeek formazio maila guztietan eskola guztiak euskaraz ematen dituzte, eta Ama Guadalupekoak eta San Josek Euskara eta Elebitasuna lantzen dute, Haur Hezkuntzan Euskaran indar handiagoa jartzen dutelarik. Beraz, Hondarribiko ikaslerik gehienek bere ikasketak euskaraz "D Ereduan" egiten dituzte, %61ek alegia, eta %35 "B Eredua"n ele bitan aritzen dira. "A Eredua", gaztelera oinarri duenak, 90 gazte besterik ez du bere baitan, %4 alegia, Ama Guadalupen hain zuzen ere, Batxilergoan.

Beste eskaintza batzuk:

Hautzaindegi pribatuak
HHI
Udal Euskaltegia
Hizkuntz Eskolak
Eskola-laguntza eta psikopedagogia zentroak.

LANBIDEA

Lanbidera bideratutako erakunde eta ekipamendu guztian eskualdekoak dira. Hau da, bulegoak Irunen daude, baina Hondarribiko biztanleak ere bere baitan hartzen dituzte eta haiei zuzenduak ere badira.

- INEM
- Lanbide hastapena
- Lanbide tailerrak
- Lan aholkularitza eta lana emateko zerbitzua
- BIDASOA BIZIRIK
- LANGAI Euskal Lan Zerbitzua, Eusko Jaurlaritzak abian jarria.
- ASCODEL, 40 urtetik gorako langabetuentzako lan zerbitzua
- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala (GSIN) – Eskualdeko bulegoa
- Berritzegunea

OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUETAKO EKIPAMENDUAK

Iturria: Hondarribiko Udala / Data: 2008

OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUETAKO EKIPAMENDUAK	
Laguntzarako ekipamenduak	4
Osasun ekipamenduak	2
Elkarteak	8
Guztira	14

EKIPAMENDUAK ETA KIROL ELKARTEAK:

Iturria: Hondarribiko Udala / Data: 2008

EKIPAMENDUAK ETA KIROL ELKARTEAK	
Balio anitzeko pistak	13
Pilotalekuak	5
Kirol elkarte et klubak	25
Guztira	43

Kirol elkarte eta kluben jarduerak	
Xakea	1
Automobilismoa	1
Saskibaloia	1
Eskubaloia	1
Ehiza	1
Txirrindularitza	1
Dantza	1
Futbola	1
Areto futbola	1
Golfa	1
Herri Kirolak	1
Judoa	3
Urpekaritza	1
Mendizaletasuna	1
Igeriketa	1
Euskal Pilota	1
Arrauna	1
Surfa	1
Bela	1
Yoga	1
Besterik	3
Guztira	25

KULTUR ETA GAZTE EKIPAMENDUAK

Iturria: Hondarribiko Udala / Data: 2008

GAZTEENTZAKO KULTUR EKIPAMENDUAK	
Kultur instalazio publikoak	3
Kultur instalazio pribatuak	7
Arte Galeriak	
Kultur Elkarteak	10
Musika Elkarteak	15
Gazteentzako Instalazio eta Zerbitzu publikoak	2
Aisialdiko elkarteak	1
Auzo Elkarteak	5
Elkarte profesionalak	2
Guztira	45

OSTALARITZA EKIPAMENDUAK:

Iturria: Hondarribiaturismo.com eta Sociadadesgastronomicas.com/ Data: 2008

OSTALARITZAKO EKIPAMENDUAK	
Diskotekak	1
Taberna eta Kafetegiak	25
Jatetxeak	32
Pub-ak	10
Gazteentzako Instalazio eta Zerbitzu publikoak	2
Sagardotegiak	2
Hanburgesategiak	4
<i>Elkarte Gastronomicoak</i>	9
Guztira	85

AMIA analisisia

Lehen esan dugun bezala Drogamenpeketasunen Udalaren diagnostiko komunitarioa egiteko asmoz Tokiko Plana idatzi aurretik tokiko eragileekin harremanetan jarri ginen parte har zezaten, diagnosian AMIA teknika erabili genuelarik.

Analisi horrek Hondarribiko Udalaren gaur egungo ahultasunak, mehatxuak, indarrak eta aukerak antzemateko bidea ematen du. Horrela, gure komunitatearen gainean duten ikuspegiari buruz eragileek egindako ekarpenak oso erabilgarriak izan dira Planaren ildo estrategikoak zein izan behar zuten hausnartu eta eztabaidatzerakoan.

Ohartarazi behar da ideia bakar baten alderdiak azaltzen ditugun heinean, agian honek balio bakar bat baino gehiago izan ditzakeela mehatxu nahiz aukera edo ahulezia nahiz indarra izan daitekeen neurrian, aztertzen den moduaren arabera. Hau ideia bakar baten analisi osoa egitea da, alderdi positiboak nahiz negatiboak nabarmentzen direlarik.

Prozesu osoan zehar ideia asko esan, gai asko landu eta ekarpen asko egin badira ere, Drogamenpeketasunen Prebentzio Komunitarioaren Udal Planaren idazkiarekin harreman handiena eta esanguratsuena duten alderdiak azaldu nahi ditugu.

Hala ere, aurrerago, Plana idatzi duen Prebentzio Komunitarioko Udal zerbitzuak hiru edo lau ideia garrantzitsuenak nabarmendu nahi ditu, Plana burutzerakoan ildo estrategikoak ezartzeko aukera eman duten hauek.

Azken laukian azaldu ditugu Plana idatzi duen Prebentzio Komunitarioko Udal Zerbitzuak garrantzizkoentzat jo dituen ideiak, hauek giltzarria baitira Hondarribiko Drogamenpeketasunen Tokiko IV Planaren ildo estrategikoak ezartzerakoan.

AHULEZIAK

- 1.- Herriaren zati batek ez daki oro har udal zerbitzuek burutzen duten lanaren berri, eta ondorioz ezta Prebentzio Komunitarioaren Zerbitzuaren programa, proiektu eta zerbitzuen berri. Informazio handia dago, eta herriari iritsarazten zaio oro har, baina batzuetan ez da modurik egokienean heltzen.
- 2.- Bestetik, zenbaitek Prebentzio Zerbitzua arazoak dituzten egoera edo pertsonekin lotzen du, kontuan izan gabe komunitate osoari zuzendutako zerbitzu normalizatua dela.
- 3.- Zerbitzuak aldiro-aldiro bere ekintzak ebaluatzen baditu ere, komunitatean eragina duen ebaluazio tresna diseinatzea garrantzitsua da: jendaurreko aurkezpenetan eta komunikabideetan garatutako proiektuak itzultzea, eta abar.
- 4.- Ikusi da arazoa dagoela ahulagoak diren taldeetara iristeko, baita helburu diren “xede-populazioetan” zenbait proiektu edo programaren eragina handitzeko ere.
- 5.- Urrakortasun eragileak antzemateko tresna behar da, alor komunitarioan familia, haur eta nerabeekin diharduten heziketa, osasun eta gizarte zerbitzuek komunean dutena.
- 6.- Argi dago zaila dela nerabe eta gazteak oro har erakunde baliabideetara hurbiltzea; zentzu horretan ikusten dugu zailtasuna dagoela Prebentzio Komunitarioko Udal Zerbitzura hurbiltzerakoan.

- | |
|---|
| <ol style="list-style-type: none">1.- Herriaren zati batek ez daki oro har udal zerbitzuek burutzen duten lanaren berri, eta ondorioz ezta Prebentzio Komunitarioaren Zerbitzuaren programa, proiektu eta zerbitzuen berri. Oro har jendeari informazio asko ematen zaio, baina ez da modu egokienean iristen.2.- Ikusi da arazoa dagoela ahulagoak diren taldeetara iristeko, baita helburu diren “xede-populazioetan” zenbait proiektu edo programaren eragina handitzeko ere.3.- Zenbaitek Prebentzio Zerbitzua arazoak dituzten egoera edo pertsonekin lotzen du, kontuan izan gabe komunitate osoari zuzendutako zerbitzu normalizatua dela. Zentzu horretan argi dago zailtasuna dagoela jendea oro har eta gazte eta nerabeak erakunde baliabideetara hurbiltzeko. |
|---|

MEHATXUAK

- 1.- Hondarribia herri txikia da, bertan ia jende guztiak ezagutzen du elkar, eta ondorioz batzuetan intimitatea hautsi daiteke, eta zenbait kideren “urrakortasuna” dela eta berauek irain daitezke. Honek ez du jasamena, ezberdina denaren onarpena eta beste ikuspegi bidezko aberastea bideratzen.
- 2.- Hondarribiak Irunen beharra du zerbitzu batzuei eta aisiari dagokienez, eta gainera komunikabideen baitan dago.
- 3.- Herrian ez dago herriaren kultur nahiak asetzeko kultur etxerik, eta horrek baldintzatu egiten du Hondarribiko kultur eskaintza.
- 4.- Kirolari dagokionez, kirol ekipamenduetan inbertsio handia eginga izan arren eta oro har jendearengan sustatzeko alorra izan arren jarduera fisikoan krisia dago.
- 5.- Harreman gune naturalen krisia dago, topagunerik ez dago, eta gizarte eta komunitate sarea ahula da. Zentzu horretan kalea harreman gune gisa desagertzen ari da, eta oraintxe ez du topatzeko aukerarik ematen.
- 6.- Gazteek aisiaren kudeaketari dagokionez egiten duten aisiaren kultura nabaria da, helduek duten kontrol behararen babeskeriak indartu egiten duena.
- 7.- Herriari dagokionez alor komunitarioari dagokion guztian ahuldu eta galtzen ari da, eta banakakoaren aldeko joera dago. Harremanetan jartzeko modua aldatu egin da gazteen artean, eta topagune lokalak bihurtu dira, dauden baliabide komunitarioen kaltetan. Komunikazio galera eta berdinak diren taldeen arteko urruntasun sentipena dago. Zenbait alorretan izaten den parte hartzea eskasa da eta ez du jakin-minik sortzen, ondorioz lidergo eza dago.
- 8.- Oinarrian, giza eta talde balore eza dago. Bestetik gehienok dugun bizitza erritmo biziak ez ditu gure arteko harremanak eta balore komunitarioak zabaltzea ahalbideratzen. Hala ere gazteek guk helduak garen aldetik aurkezten dizkiegun ereduak kopiatzen dituzte, eta zaila izaten da geuk ekintza komunitarioetan parte hartzea. Zentzu horretan zalantzan dago helduen mundua eredu denik.
- 9.- Eskolari dagokionez argi dago aldaketa handia gertatu dela eta jokaerak asko aldatu direla. Irakasleek gazteentzako eredu behar dute izan, baina haiekin eta gurasoekin duten harremana asko pobretu da azken urteetan. Eskola-porrota areagotzen ari da, eta kontuan hartzekoa da, garrantzia eman ezean batzuetan arrisku egoerak sor baititzake, hala nola zenbait sustantzia hartzea.
- 10.- Elkartzeko sare egokia izanik, ez da borondatezko lana eta parte hartzea sustatzeko erabiltzen, gizarte sarea oso ahula baita eta komunitatean gabezi asko baitaude alor horretan. Hori dela eta urrakorrenak diren gizakiek ez dute dauden zailtasunei aurre egiteko baliabiderik. Bestetik, etorkizunari begira, elkartze horrek ez du eragin handirik arlo horretan belaunaldi ordezkapenik ez baitago.
- 11.- Behin eta berriz ari gara gazteen kontsumoari buruz, baina nahiz eta xede-taldea izan, ezin dugu ahaztu gizarte osoan dagoen kontsumoak duen garrantzia.
- 12.- Kontsumoa zenbait “hastapen erritoekin” eta “gizarte eta jai erritoekin” dago lotua. Lotura hauek haustea oso zaila da, gizarte-presioak aldaketak zailak izan daitezen eragiten baitu. Horretarako balio eskalan aldaketa bat eragin beharko litzateke, “oraingo gizarteko pentsaera”k norabide horretan aurrera egitea zailtzen baitu.
- 13.- Antzematen da sustantzien kontsumoa aurreratzen ari dela eta kontsumoa gero eta jende gazteagoarengan gertatzen ari dela. Zilegiagoa da eta modu batean normalagoa gizartean onartuak diren zenbait droga hartzea, alkohola, tabakoa, eta kannabisa esate baterako. Bestetik, antza, ez dago arazoa dagoenik onartua, eta kontsumo hauek sortzen dituzten ondorioak gutxi antzematen dira oro har.
- 14.- Nahiz eta medikuntza arloak ere alkohola, tabakoa eta kannabisaren kontsumoa igo egin dela ikusten duen, datuek adierazten dutenaren arabera badaude kontsumoari edo hasierako arazoei aurre egiteko gaur egungo osasun sistemaren antolaketarekin zerikusia duten arazo batzuk, lehen mailako arreta ematea eragozten dutenak, eta era berean badago osasun sistema errealtatera iristeko zailtasuna.
- 15.- Herriko jendearekin lan egiten duten zerbitzuekin harreman jarraitua izatea oinarritzkoa izanik zaila da lan sareak ezartzea komunitateko profesional eta zerbitzuen artean komunikatzeko guneak falta direnez, baita komunikazio hori sendotzeko protokoloak ere.

1.- Harreman gune naturalen krisia dago, topagunerik ez dago, eta gizarte eta komunitate sarea ahula da. Herriari dagokionez alor komunitarioari dagokion guztia ahuldu eta galtzen ari da, eta banakakoaren aldeko joera dago. Harremanetan jartzeko modua aldatu egin da gazteen artean, eta topagune lokalak bihurtu dira, dauden baliabide komunitarioen kaltetan. Komunikazio galera eta berdinak diren taldeen arteko urruntasun sentipena dago, baita gidari eza ere. Gazteek egiten duten aisiaren kudeaketari dagokionez aisiaren kultura nabaria da, helduek duten kontrol beharraren babeskeriak indartu egiten duena.

2.- Kontsumoa zenbait “hastapen erritoekin” eta “gizarte eta jai erritoekin” dago lotua. Lotura hauek haustea oso zaila da, gizarte-presioak aldaketak zailak izan daitezzen eragiten baitu. Antzematen da sustantzien kontsumoa aurreratzen ari dela eta kontsumoa gero eta jende gazteagoarengan gertatzen ari dela. Zilegiagoa da eta modu batean normalagoa gizartearen onartuak diren zenbait droga hartzea, alkohola, tabakoa, eta kannabisa esate baterako. Bestetik, antza, ez dago arazoa dagoenik onartua, eta kontsumo hauek sortzen dituzten ondorioak gutxi antzematen dira oro har.

3.- Herriko jendearekin lan egiten duten zerbitzuekin harreman jarraitua izatea oinarritzkoa izanik komunikatzeko guneak falta direnez zaila da lan sareak ezartzea komunitateko profesional eta zerbitzuen artean, baita komunikazio hori sendotzeko protokoloak ere.

INDARRAK

- 1.- Herri txikia izanik udal administrazioa osatzen duten departamentu eta zerbitzuekiko harremana errazagoa da, ondorioz hurbilagoa eta jarraiagoa, beraz Udala herriaren beharren aurrean irekiagoa eta ulerkorragoa da.
- 2.- Martxan daramatzen 10 urte hauetan Prebentzio Komunitarioko Udal Zerbitzua izatea onuragarritzat du Udalak.
- 3.- Herriko jendeak balorazio ona egiten du oro har Prebentzio Komunitarioko Zerbitzuak eskaintzen dituen proiektu, programa eta zerbitzuei buruz.
- 4.- Zerbitzuak herriari zuzendutako prebentzio programak diseinatzen eta garatzen ditu, azken finean, arriskua duten taldeak antzematea oinarritzkoa izanik ere, garrantzizkoa baita maila orokorrean prebentzio lana garatea. Drogamenpekotasunen Prebentzio Komunitarioko Udal Planak garatzen dituen esperientzia eta bizipen guztiek herri osorako prebentzio estrategiak zehazteko aukera ematen dio.
- 5.- Prebentzio Komunitarioko Zerbitzuak gazteen arazoei erantzun egokiak emateko gaitasuna du, udaleko gazteengana iritsi ahal izateak prebentzio programa ugari garatzeko aukera ematen baitio.
- 6.- Zerbitzuak burutzen dituen kanpaina eta programen bidezko prebentzio proposamen aktiboek bidea ematen dute bizimodu osasungarriak sortzeko ekintzak garatzeko, eta hau onuragarritzat jotzen da. Garrantzitsua da herriak, zerbitzua, komunitatearen onurarako garatu nahi dituen ekintzak sortzeko lagungarri ikustea.
- 7.- Zerbitzuak harreman handia du udaleko gizarte eragileekin, eta honek errazten du udal osoko gizarte sareetan eragitea. Bestetik zerbitzuak komunitate mailan era eraginkorrean lan egiteko giltzarriak ezagutu eta lantzen ditu.
- 8.- Zerbitzuak interes handia du aldi oro udaleko zerbitzuen artean komunikazio ona garatzeko eta, erabiltzaileen onurarako ahalik eta modurik eraginkorrean koordinazioa burutzeko, eta horretarako Zerbitzuen arteko sare harremana sustatzen du.

- | |
|---|
| <ol style="list-style-type: none">1.- Herri txikia izanik udal administrazioa osatzen duten departamentu eta zerbitzuekiko harremana errazagoa da, ondorioz hurbilagoa eta jarraiagoa, beraz udala herriaren beharren aurrean irekiagoa eta ulerkorragoa da. Zerbitzuak interes handia du aldi oro udaleko zerbitzuen artean komunikazio ona garatzeko eta erabiltzaileen onurarako ahalik eta modurik eraginkorrean koordinazioa burutzeko, eta horretarako zerbitzuen arteko sare harremana sustatzen du.2.- Martxan daramatzen 10 urte hauetan Prebentzio Komunitarioko Udal Zerbitzua izatea onuragarritzat du Udalak, herriko jendeak balorazio ona egiten du oro har Prebentzio Komunitarioko Zerbitzuak eskaintzen dituen proiektu, programa eta zerbitzuei buruz. Drogamenpekotasunen Prebentzio Komunitarioko Udal Planak garatzen dituen esperientzia eta bizipen guztiek herri osorako prebentzio estrategiak zehazteko aukera ematen dio. Garrantzitsua da herriak zerbitzua komunitatearen onurarako garatu nahi dituen ekintzak sortzeko lagungarri ikustea.3.- Prebentzio Komunitarioko Zerbitzuak gazteen arazoei erantzun egokiak emateko gaitasuna du, udaleko gazteengana iritsi ahal izateak prebentzio programa ugari garatzeko aukera ematen baitio.4.- Zerbitzuak harreman handia du udaleko gizarte eragileekin, eta honek errazten du udal osoko gizarte sareetan eragitea. Bestetik zerbitzuak komunitate mailan era eraginkorrean lan egiteko giltzarriak ezagutu eta lantzen ditu. |
|---|

AUKERAK

- 1.- Hondarribia herri txiki eta lasaia da eta ia jende guztiak ezagutzen du elkar. Horrek harremanak errazten ditu, eta ondorioz laguntzarako berezko sareak.
- 2.- Irun eta Hendaia Hondarribiatik hurbil izateak eskualde mailan baliabide asko izateko bidea ematen du.
- 3.- Azpiegiturak, instalazioak eta kirol eskaintza nahiko onak dira. Horren ondorioz herriak aukera asko ditu kirol mota guztiak egin eta bizimodu osasungarria eramateko. Bestetik Kiroldegia “topagune” garrantzitsua da udaleko gazteentzat.
- 4.- Udalean aisia dela eta gazteek badituzte baliabideak. Bestetik lokalek beren burua kudeatzeko aukera ematen die gazteei, erantzukizuna eta antolatzeo aukerak emanez gazte horiei.
- 5.- Gazte talde batzuek komunitatearen onurarako kultura parte-hartzailea sortzen duten ekintzak eta guneak sortu nahi dituzte, haiek gidaturiko ekintzen bitartez eta dauden berezko taldeen beharrak elkartzuz gaur egun dagoen “aisia kontsumoaren” aurrean haien autonomia indartzeko, kalea berriz ere harremanetarako gunea izan dadin.
- 6.- Gaur egungo Komunikazio eta Informazioari buruzko Teknologia berriak prebentzio aukera baliagarriak izan daitezke egoki erabiliz gero. Gaur egun jende askok IKT horiek erabili ahal izateak komunitate mailako informazioa zabaltzeko modu berriak izateko aukera ematen du. Horren ondorioz euskarri horiek egoki erabiliz gero badaude prebentzio estrategiak garatzeko aukera ugari.
- 7.- Helduen munduak aukera handiak eskain diezazkieke heziketa “eredu” gisa gazteei. Helduek ematen duten eredia oinarritzkoa da gazteentzat eta beren jokabidearen baitan dago neurri handi batean hauen jokaera. Zentzu horretan gurasoen irakasleen eta hezitzaileen inplikazio eta konpromisoa funtsezkoa da ume eta gazteen garapenerako.
- 8.- Eskola oinarritzko testuingurua da ume eta gazteentzat, eta zentzu horretan heziketa arloko profesional guztiak hautzat denentzat eredu dira.
- 9.- Pertsonen artea ematen diharduten zerbitzu guztien arteko komunikazioa ezinbestekoa da, eta norabide ezberdinetan gertatu behar du, informazioa maila ezberdinen artean gerta daitekeelarik. Horrek ekiteko aukera asko ematen dizkie barrengo eragile guztiei.
- 10.- Drogamenpekotasunen Tokiko Plan honi eragile komunitarioek eman dien erantzunak hiritarrek udala garatu eta hobetze aldera jarduteko duten nahia azaltzen du.

1.- Hondarribia herri txiki eta lasaia da eta ia jende guztiak ezagutzen du elkar. Horrek harremanak errazten ditu, eta ondorioz laguntzarako berezko sareak. Bestetik udal zerbitzuen arteko komunikazioa eta komunitateko eragileek parte hartzeko prozesuan jardutea errazten du.

2.- Azpiegiturak, instalazioak eta kirol eskaintza nahiko onak dira. Horren ondorioz herriak aukera asko ditu, kirol mota guztiak egin eta bizimodu osasungarria eramateko. Bestetik Kiroldegia “topagune” garrantzitsua da udaleko gazteentzat. Udalean aisia dela eta gazteek badituzte baliabideak, gainera lokalek beren burua kudeatzeko aukera ematen diete gazteei, erantzukizuna eta antolatzeo aukerak emanez gazte horiei.

3.- Gaur egungo Komunikazio eta Informazioari buruzko Teknologia berriak (IKT-ak) prebentzio aukera baliagarriak izan daitezke egoki erabiliz gero. Gaur egun jende askok IKT horiek erabili ahal izateak komunitate mailako informazioa zabaltzeko modu berriak izateko aukera ematen du. Horren ondorioz euskarri horiek egoki erabiliz gero badaude prebentzio estrategiak garatzeko aukera ugari.

4.- Helduen munduak aukera handiak eskain diezazkieke heziketa “eredu” gisa gazteei. Helduek ematen duten eredia oinarritzkoa da gazteentzat eta beren jokabidearen baitan dago neurri handi batean hauen jokaera. Zentzu horretan gurasoen, irakasleen eta hezitzaileen inplikazio eta konpromisoa funtsezkoa da ume eta gazteen garapenerako.

Drogen Konsumoaren Analisia

Drogamenpekotasunen Tokiko Plan orok herriaren errealitatea testuinguru batean kokatu behar du, drogen kontsumoari dagokionez. Zentzu horretan, ez dugu Hondarribiko drogen kontsumoari buruzko txosten zehatzik, baina baditugu Europa, estatu eta autonomia mailako gai horri buruzko ikerketak.

Ondorioz hautaketa bat egin dugu, eta ondoren adierazten dugun hauek dira gaur egungo drogen kontsumoari buruzko egoera ikusteko oinarri hartuko ditugun azterketa eta txostenak.

- Drogamenpekotasunen Euskal Behatokia
 - Euskadi eta Drogak 2006
 - Euskadi eta Drogak 2008
- Drogamenpekotasunen Espainiako Behatokia
 - Espainian drogen gehiegizko erabilerari buruz etxetz etxe egindako inkesta 2003
- Estatistikako Institutu Nazionala (EIN)
 - Osasunari buruzko Inkesta Nazionala 2003
- Eurostat
 - New Cronos Datu Basea 2004

Drogamenpekotasunen Euskal Behatokiaren Euskadi eta Drogak 2008 (*EyD2008*) da azken ikerketa, eta ondorioz horretan oinarrituko gara analisi hau egiteko. Ikerketa honek duen luzaeragatik gure ustez interesgarrienak diren datuen hautaketa bat egin dugu, horren bidez gaur egun gure udalean dagoen droga kontsumoaren egoerara hurbilduko garelakoan.

Interesgarria iruditu zaigu Euskadin gaur egun dagoen drogen kontsumoari buruzko ikuspegia azaltzea, honen bidez azken urteetan esparru horretan ikusi diren joerak azal ditzakegulakoan. Horrela, datu hauek Hondarribian dagoen drogen kontsumora hurbiltzen gaituztelakoan, datozen urteetan landuko ditugun Drogamenpekotasunen Prebentzio Komunitarioko Udal Plan berri honentzako lerro estrategikoak zehaztu ahal izan ditugu.

EUSKADIN GAUR EGUN DAGOEN DROGEN KONTSUMOA

Euskadin dagoen drogen kontsumoaren egoerak drogen kontsumo orokorraren ikuspegia ematen digu, eta horrela drogamenpekotasunen hedapena hobeto ulertzen laguntzen digu. Datu hauek gure Autonomi Erkidegoko kontsumo maila eta ohiturak azalerraten dituzte.

EUSKADIKO DROGA KONTSUMOARI BURUZKO DATUAK

	Kontsumitzaileen gutxi gorabeherako kopurua	2008ko prebalentzia	2006ko prebalentzia	1992ko prebalentzia
Alkoholaren kontsumoa bizitzan noizbait	1.543.100	91,7	94,8	--
Alkoholaren kontsumoa azken 30 egunetan	1.149.300	68,3	73,8	--
Arriskuaren barruko kontsumoa lanegunetan	33.800	2,0	1,0	2,9
Arriskuaren barruko kontsumoa asteburuan	231.300	13,8	13,9	13,2
Alkoholaren eguneroko kontsumoa	287.700	17,1	19,0	--
Tabakoaren kontsumoa bizitzan noizbait	1.013.000	60,2	59,5	--
Tabakoaren kontsumoa azken 30 egunetan	590.000	35,2	35,5	37,7
Egunean pakete 1etik gorako kontsumoa	62.400	3,7	3,4	7,3
Tabakoa utzi dutenak	410.600	24,4	24,0	14,7

Iurria: EyD2008

	Kontsumitzaileen gutxi gorabeherako kopurua	2008ko prebalentzia	2006ko prebalentzia	1992ko prebalentzia
Cannabisaren kontsumoa bizitzan noizbait	568.800	33,8	36,2	21,9
Cannabisaren kontsumoa azken 30 egunetan	201.900	12,0	14,0	6,2
Cannabisaren eguneroko kontsumoa	65.600	3,9	3,8	0,5
Kokainaren kontsumoa bizitzan noizbait	146.400	8,7	8,1	3,2
Kokainaren kontsumoa azken 30 egunetan	18.500	1,1	1,4	0,2
Speedaren kontsumoa bizitzan noizbait	144.700	8,6	8,8	3,4
Speedaren kontsumoa azken 30 egunetan	16.800	1,0	1,1	0,3
Estasiaren kontsumoa bizitzan noizbait	55.500	3,3	2,6	--
Estasiaren kontsumoa azken 30 egunetan	3.400	0,2	0,3	--

Iturria: EyD2008

EyD2008 ikerketaren ildotik analisia sustantzien arabera sailkatu dugu, legez kanpoko drogak (kannabis-a izan ezik) atal bakarrean sartuta: **alkohola, tabakoa, kannabis-a eta legalak ez diren beste droga batzuk**. Sustantziari buruz adierazgarri nagusi gisa gailentasunak, intentsitateak, eta maiztasunak jaso ditugu, adin eta sexu aldaerekin gurutzaturik. Informazio hau nazio mailan eta nazio artean egiten diren erkaketen bidez osatu dugu.

ALKOHOLA

Alkohola da zalantzarik gabe Euskal gizartean hedatuen eta onartuen dagoen kontsumoa. Dugun ikerketarik berrienean, Euskadi eta Drogak 2008 izenekoan, datuek alkohol kontsumoaren irudi adierazgarriagoa azaltzen dute. Datu hauen arabera *“euskal gizartearen ia %92k noizbait bere bizitzan alkohola kontsumitu du, eta %7,3k ez duela inoiz alkoholdun edaririk dastatu adierazi du”* Denbora laburturik, *“azken urtean euskal gizartearen %78,6k adierazi du alkohola kontsumitu duela (...), %68,3k azken hilabetean kontsumitu duela(...) eta %17,1ek azken urteko egun guztietan kontsumitu duela”* adierazten dute..

2. TAULA: ALKOHOL KONTSUMOAREN OHITURAK SEXUA ETA ADINAREN ARABERA(%)

		Bizitzan noizbait kontsumitu (probatzeko)	Azken 12 hilabeteetan kontsumitu (duela gutxi)	Azken 30 egunetan kontsumitu (orain)	Egunero kontsumitu
15-24	Gizonak	91,3	83,9	76,1	1,8
	Emakumeak	87,9	79,3	67,1	0,8
	Guztira	89,6	81,7	71,7	1,3
25-34	Gizonak	95,6	89,9	84,3	13,4
	Emakumeak	92,3	73,9	59,7	2,4
	Guztira	94,0	82,2	72,4	8,1
35-54	Gizonak	98,3	89,4	82,7	25,5
	Emakumeak	91,3	76,7	63,8	7,4
	Guztira	94,8	83,0	73,2	16,4
55-74	Gizonak	95,2	78,6	73,2	44,9
	Emakumeak	79,1	60,0	42,6	19,0
	Guztira	86,9	69,0	57,4	31,6
Guztira	Gizonak	95,9	85,8	79,5	25,3
	Emakumeak	87,5	71,5	57,1	9,0
	Guztira	91,7	78,6	68,3	17,1

Iturria: EyD2008


Demografia aldetik alkoholaren kontsumoari dagokionez ikusten da kontsumoa zabaldugoa dagoela gizonen artean emakumeen artean baino, *“azken 30 egunetan gizonen %79,5ek kontsumitu baitu eta emakumeen %57,1ek”*.

Gaur egungo kontsumo ohitura eta hedapenari dagokienez *“antzekoa da adin guztietan”* hala ere eguneroko ohiturari dagokionez zabaldugoa dago 55 eta 74 urte bitarteko artean, *“%25,3koa baita, emakumeen hirukoitza, hauek %9koa dutelarik.”*

Bestetik, “eguneroko kontsumoan ez bezala, hau talde zabarragoetan baitago bedatia, noiztean behineko kontsumo gogorragoa, hau da gehienbat aste buruetakoa, zabalduago dago gazteen artean”. Zentzu horretan esan dezakegu alkoholaren kontsumo orokorra azken urteetan handitu bada ere, gazteen arteko aste buruetako kontsumoa batez ere, “alkohola edaten hasteko adina egonkor mantendu dela azken urte hauetan, hau da 15-16 urtetan”.


Jarrain datozen grafikoek lanegun eta aste buruetako alkohol kontsumoa nola garatu den azaltzen dute. Zentzu horretan, erkatuz gero, ikerketa honetan ikusten dugu “2008ko datuek azaltzen dutela orduan izan dela 1992az geroztik abstentio gutxienez izan den garaia”. Bestetik “asteburuetan batere alkoholik kontsumitzen ez duten pertsonen proportzioa %32,6ra jaitsi da, inoiz baino txikiagoa izanik”.

1. GRAFIKOA :LAN EGUNETAKO ALKOHOLAREN KONTSUMOA (1992-2008) (%)



Iturria:EyD2008

2. GRAFIKOA :ASTEBURUETAKO ALKOHOLAREN KONTSUMOA (1992-2008) (%)



Iturria:EyD2008

Datuek azaltzen dute alkoholak ez dituela lanegunetan hainbeste arazo azaltzen, “horien aldean asteburuetan kontsumoa arriskutsua izatera iristen baita”. Zentzu horretan, “esan liteke 34.000 lagunek edo gehiegi edaten dutela, arriskuan daudela, beraz 15 eta 74 urte bitarteko populazioaren %2k”, beraz ez da oso ohitura zabaldua, gehienbat heldu eta zaharragoen arteko aztura da. Bestetik, “esan liteke 15 eta 24 urte bitarteko gazteen %28,5, 61.000 gazte gutxi gorabehera, arriskuan dauden asteburuetako edaleak direla”.

Gainera alkohol intoxikazioa eta denbora laburrean alkohol gehiegi edatea “gazteen artean gertatzen da askoz gehiago”. “15 eta 24 urte bitarteko gazteen %15,3aurten noizbait mozketu egin da, gainontzekoen artean aldiak %4,8.” Zentzu honetan esan behar da “kontsumo obitura adinak aurrera egin abala moteldu arren 25 eta 34 urte bitarteko artean ere handia dela”.

Kontuan izanik “lanegunetan gehiegi edaten dutenen %73,6k edaten dutela era berean asteburuetan, eta asteburuetan gehiegi edaten dutenen %10,8k edaten dutela berdin lanegunetan, esan liteke euskal populazioaren %1,5ek aste osoan zehar edateko obitura arriskutsua duela”.

3. TAULA: ALKOHOL KONTSUMOAREN OHITURAK SEXUA ETA ADINAREN ARABERA(%)

	Gehiegi edaten dutenak, arriskuan izanik.			
	Lanegunetan	Asteburuetan	urtean 12 mozkorralditik gora	Denbora gutxian asko edaten dutenak
Gizonak	3,3	20,4	7,7	15,7
Emakumeak	0,8	7,1	1,9	3,7
15-24 urte	0,6	28,5	15,3	14,7
25-34 urte	0,8	22,6	10,6	13,4
35-54 urte	2,7	10,9	1,6	9,0
55-74 urte	2,6	4,6	0,2	5,7
Guztira	2,0	13,7	4,8	9,7

* Azken hilabeteen 2 ordutan 5 edari alkoholikotik gora edan dutenen portzentaia 4 egun edo gehiagotan.

Iturria: EyD2008

Azkenik, EAEa eta Espainiako Estatuak alderatuz gero, *EyD2006*-aren eta Drogen Espainiako Behatokiaren ustez *“bizitzia osoan zehar, azken urtean eta azken hilabetean alkohola edan dutenen kopurua EAEan handiagoa da, bai populazio osoan oro har, bai emakume, gizon eta gazteen artean (15 eta 34 urte bitartean)*

Inguruko beste herrialdeak kontuan izanik *“Euskadi da Luxemburgo, Dinamarca, Frantzia, Alemania eta Finlandiarekin batera, alkohola probatzeko gehien edaten duten herrialdeetako bat”*.

TABAKOA

Tabakoa da, alkoholaren ondoren, Euskadin gehien kontsumitzen den sustantzia, eta gainera ohitura handiena sortzen du. Datuen arabera “15 eta 74 urte bitartean dauden 600.000 bat lagunek erretzen dute tabakoa gaur egun (...), horien artean %85ek baino gehiagok dio tabakoa erretzeko ohitura duela, eta noiztean bein erretzen dutela diotenak %15 dira gutxi gorabehera”. Bestetik, “populazioaren %60k gutxi gorabehera erre du tabakoa noiztean, eta %40k ez duela inoiz erre adierazten du”. Aurtengo datuei dagokionez azaltzen da “euskal populazioaren %38,2k erre duela tabakoa azken urte honetan, %35,2k azken hilabeteetan, eta %32,6k (548.000 bat lagunek) egunero erretzen duela”.

4. TAULA: TABAKO KONTSUMOAREN OHITURAK SEXUA ETA ADINAREN ARABERA(%)

	Bizitzan noizbait kontsumitu	Azken 30 egunetan kontsumitu	Egunero kontsumitu	Egunean pakete 1 edo gehiago.
Gizonak	69,5	39,2	35,2	15,8
Emakumeak	50,9	31,2	29,9	11,3
15-24 urte	46,8	35,9	34,4	8,3
25-34 urte	66,6	47,0	44,7	14,9
35-54 urte	68,1	38,4	36,8	18,4
55-74 urte	51,1	22,1	17,5	8,6
Guztira	60,2	35,2	32,6	13,5

Iturria: Eyd2008

Sexuari dagokionez oro har “emakumeek gizonak baino gutxiago erretzen dutela alatzzen da” baina gazteen artean ez dago hainbesteko alderik. Hala ere, nahiz eta ezin den kontsumoa intentsuagoa denik esan, “35 eta 54 urte bitarteko emakumeen erretzeko ohitura handiagoa da gizonena baino, eta gazteagoak direnen artean egunero erretzen dutenak gehiago erretzen dute adin bereko gizonak baino”.

5. TAULA: TABAKO KONTSUMOAREN OHITURAK SEXUA ETA ADINAREN ARABERA(%)

	Bizitzan noizbait kontsumitu	Egunero kontsumitu	Egunean pakete batetik gora	Ohitura tasa	Kontsumo intentsiboa
15-24	Gizonak 46,3 Emakumeak 47,3	37,3 31,3	6,7 9,9	80,7 66,3	17,9 31,7
25-34	Gizonak 66,9 Emakumeak 66,2	46,8 42,4	15,8 13,9	69,9 64,0	33,7 32,7
35-54	Gizonak 75,4 Emakumeak 60,9	36,9 36,7	20,7 16,1	48,9 60,3	56,1 44,0
55-65	Gizonak 74,4 Emakumeak 29,2	23,3 12,1	13,6 3,8	31,3 41,4	58,3 31,9

1. Tabakoa probatu duten guztien artean egunero kontsumitzen dutenen %


2. Egunero pakete bat edo gehiago kontsumitzen dutenen %.

Iturria: Eyd2008

Adinari dagokionez “egunero gehien kontsumitzen duen taldea 25 eta 34 urte bitartekoak dira (%40,7) eta gutxien kontsumitzen duena 55 eta 74 urte bitartekoa (%17,5). Bestetik tabakoaren kontsumo intentsiboa dela eta (egunean pakete bat edo gehiago) “gehien kontsumitzen dutenak 35 eta 54 urte bitartekoak dira, eta gutxien kontsumitzen dutenak 15 eta 24 bitartekoak”.

Tabakoa erretzen hasteko adinari dagokionez “egonkor jarraitzen du, 17 urterekin edo hasten baitira”, nahiz eta probatzeko hasten direnen kopuruak adina jaitsi egin dela adierazten duen.

3. GRAFIKOA: TABAKO KONTSUMOAREN GARAPENA (1992-2008) (%)



Iturria: Eyd2008

Azken urteetan izan den tabakoaren kontsumoaren garapenari buruz esan behar da tabakoa erretzen dutenen portzentaia askorik jaitsi ez bada ere, asko erretzen dutenenena jaitsi egin dela nabarmen". Gaur egunean pakete bat baino gehiago erretzen dutenen portzentaia "Euskal Herriko biztanleen %10,7koa da (...), bera erdira baino gehiago jaitsi da (64.000 lagunetara)". Ezin dugu ahaztu, hala ere, kopuru hori jaitsi egin dela nolabait "egunean pakete bat edo pakete erdi bat erretzen dutenen kopurua igo egin delako".

Azkenik, Tabakoaren ohiko kontsumoari buruz Euskadi eta Drogak 2006 txostenaren datuak eta Eurostat-ek (NewCronos 2004 datu baseak) herrialde ezberdinetarako emandako datuak alderatuz gero esan dezakegu datu horiek azalera dutela "EAE n EB-15eko herrialde gehienetan baino gehiago erretzen dela, Austrian, Danimarkan eta Luxenburgon izan ezik".

KANNABISA

Sarrera moduan, ikerketan ageri da Kannabis-a dela euskal biztanleen artean gehien erretzen den legez kanpoko substantzia. Horrela, 2008. urtean “*populazioaren %33k erre du noizbait kannabis-a, %12k azken urtean erre du (...), eta %8,7k azken egunetan erre du (...), eguneroko kontsumoak proportzio berean jarraitu du (%3,9)*”.

6. TAULA: KANNABIS KONTSUMOAREN OHITURAK SEXUA ETA ADINAREN ARABERA(%)

		Bizitzan noizbait kontsumitu	Azken 12 hilabeteetan kontsumitu	Azken 30 egunetan kontsumitu	Egunero kontsumitu	Ohitura tasa
15-24	Gizonak	53,8	39,5	33,1	19,6	36,4
	Emakumeak	46,1	28,7	17,5	5,7	12,3
	Guztira	50,0	34,2	25,5	12,8	25,6
25-34	Gizonak	66,1	30,9	24,0	12,6	19,1
	Emakumeak	47,9	12,4	8,2	2,6	5,4
	Guztira	57,3	22,0	16,4	7,8	13,6
35-54	Gizonak	50,3	12,2	8,7	2,4	4,8
	Emakumeak	24,1	4,1	2,0	0,7	3,0
	Guztira	37,1	8,1	5,3	1,6	4,2
55-74	Gizonak	7,8	0,6	0,6	0,3	4,1
	Emakumeak	3,6	0,0	0,0	0,0	0,0
	Guztira	5,6	0,3	0,3	0,2	2,8
Guztira	Gizonak	42,2	16,5	12,9	6,2	14,8
	Emakumeak	25,5	7,6	4,6	1,5	5,9
	Guztira	33,8	12,0	8,7	3,9	11,4

1. Azken 30 egunetan kannabis-a gutxienez astean 4tan kontsumitzea.
2. Kannabis-a noizbait kontsumitu dutenen artean eguneroko kontsumitzen dutenen %

Iturria: Eyd 2008

Taulan azaltzen den bezala “*duela gutxi edo gaur egun erretzen dutenen kopururik handiena 15 eta 24 urte bitartean daude*”. Horrela, adin horretako gazteen artean “*duela gutxi kontsumitu dutenak %34,2 dira, eta orain kontsumitzen dutenak %25,5*”.


Bestetik, kontsumo hauek askoz hedatuago daude mutilen artean nesken artean baino. Horrela, “*15 eta 24 urte bitartean kannabi-sa kontsumitzen duten mutilen %39,5 eta %33,1 duela gutxi edo orain kontsumitzen ari dira, eta adin bereko nesken artean %28,7 eta %17,5*”.

Eguneroko edo ia eguneroko kontsumoari buruz esan behar da “*batez ere mutil gazteek kontsumitzen dutela kannabis-a egunero (66.000 bat lagunek), %80 gizonak baitira eta %62k 30 urte baino gutxiago ditu*”. Zentzu horretan gizon eta emakumeen arteko alderik handiena adin handiagoa duten taldeetan azaltzen da, eta adierazgarriagoa da kontsumo duela gutxikoa denean.

Kannabis-aren lehenengo kontsumoari buruzko 2008ko datuak oso adierazgarriak dira, lehen kontsumoaren adinak gora egiten baitu, “*populazio osoan 19 urtetan delarik*”.

Bestetik kannabis-aren kontsumo azken urteetan igo egin da, baina 1992az geroztik lehenengo aldiz jaitsi da 2008an probatzeagatik kontsumitu dutenen kopurua. Kontsumoaren garapenari dagokionez datuek azaltzen dituzten portzentajeen arabera “*orain %8,7k kontsumitzen du, duela gutxi %12k, eta probatzekeko %33k*”. Zentzu honetan datu hauek drogen kontsumoari buruz Euskadin egindako ikerketen arabera “*joera nagusien haustura garbia dira*”.

5. GRAFIKOA: KANNABIS KONTSUMOAREN GARAPENA (1992-2008) (%)



Iturria: E3D 2008


Hala ere esan behar dugu kannabis-a egunero kontsumitzen dutenen kopurua ezberdina dela beste parametroen aldean. Zentzu horretan “*gehien handitzen den kontsumoa da, %3,9an bain zuzen ere (...) beraz 66.000 lagunek hartzen dute egunero*”. Bestetik antzematen da azken urte hauetan “*kontsumitzaile baten aldaketa soziodemografikoa gertatzen ari dela (...), 15 eta 24 urte bitarteko gazteen portzentaia asko jaisten baita (%41.), eta emakumezkoena igo (%19,4)*”.

Beraz, alor hauek guztiak kontuan izanik esan genezake kannabis-ak batez ere mutil gazteen artean azken urteetan nabarmen gora egin badu ere, 2008ko datuen arabera kontsumoa nabarmen jaitsi dela gazteenen artean.

LEGEZ KANPOKO BESTE SUBSTANTZIAK

Beste drogen kontsumoari buruz esan behar da ondoren azaltzen dugun grafikoak azaltzen duela kannabis-a ez diren legez kanpoko beste substantziak kontsumitzeko ohiturak zein nolakoak diren. Ikus daitekeenez, *gehien kontsumitzen den legez kanpoko substantzia lehenengo aldiz kokaina da (%8,7), gaur arte bere aurretik afetaminak edo speed-a baitzuden (%8,6). Bere atzetik datoz tartea handiarekin LSDa, onddo haluzinogenoak eta estasia, hurrenez hurren %4,4, %4,2 eta %3,3ko kontsumoarekin. Azkenik franko atzerago ditugu arnasten direnak, ketamina eta heroina, guztiak %1ean edo kontsumitzen direlarik*”.

7. GRAFIKOA KANNABIS-A EZ BESTE LEGEZ KANPOKO SUBSTANTZIEKONTSUMOA



Iturria: E3D 2008

Legez kanpoko drogen kontsumoari dagokionez “euskal gizartearen %1ek kannabis-a ez den beste drogaren bat noizbait kontsumitu du, %4,8k (80.000 bat lagunek) azken 12 hilabeteetan egin du, eta %2,1ek (36.000 lagunek baino gutxiagok) azken hilabeteetan kontsumitu du”.

Legalak ez diren droga hauen kontsumitzaileak demografikoki aztertuz gero ikusten da “berriaz ere bere erabilera zabalduago dagoela gizoneen artean (%16,8) emakumeen artean baino (%8,3)”. Bestetik adinari dagokionez ikerketaren datuek azaltzen dute “25 eta 34 urte bitartekoak badira probatzeko eta duela gutxi gehien kontsumitu duen taldea, gaur egun gehien kontsumitzen dutenak 15 eta 24 urte bitartekoak direla, kannabis-arekin gertatzen zen bezala”. Hala ere esan behar da eguneroko kontsumoari dagokionez “handiagoa dela 55 eta 74 urte bitartekoen artean (%0,9)”. Dena den eguneroko kontsumoari dagokionez “handiagoa dela 55 eta 74 urte bitartekoen artean (%0,9)”.

Adinari dagokionez legez kanpoko drogak kontsumitzen hasten diren adinari buruz esan genezake batz besteko igo egin dela inoiz ez bezala. Horrela, “adinik txikiena anfetaminari dagokionez, 19,9 urterekin batz bestek, ondoren estasia dator, 21,8 urterekin eta kokaina haults egina, 22,1 urterekin”.

7. TAULA: KANNABIS-A EZ DIREN BESTE SUBSTANTZIEEN KONTSUMO OHITURAK SEXUA ETA ADINAREN ARABERA(%)

		Bizitzan noizbait kontsumitu	Azken 12 hilabeteetan kontsumitu	Azken 30 egunetan kontsumitu	Egunero kontsumitu
15-24	Gizonak	19,2	9,6	5,3	0,4
	Emakumeak	11,2	5,7	2,7	0,0
	Guztira	15,3	7,7	4,1	0,2
25-34	Gizonak	31,1	12,7	5,5	0,9
	Emakumeak	15,3	3,6	2,2	0,5
	Guztira	23,5	8,3	3,9	0,7
35-54	Gizonak	21,7	6,2	2,5	0,4
	Emakumeak	9,0	2,6	0,3	0,0
	Guztira	15,3	4,4	1,4	0,2
55-74	Gizonak	4,5	1,9	1,6	1,6
	Emakumeak	1,3	0,9	0,3	0,3
	Guztira	2,9	1,4	0,9	0,9
Guztira	Gizonak	18,6	6,8	3,3	0,8
	Emakumeak	8,3	2,7	1,0	0,2
	Guztira	13,4	4,8	2,1	0,5

Iturria: E3D 2008

Adierazi behar da bere bizitza osoan zehar drogaren bat probatu dutenen %66,1ek bat bakarrik probatu duela, kannabis-a barne. Hala ere azaldu behar da aipaturiko horien %94k kannabis-a bakarrik probatu duela. Kannabis-a ez den beste drogaren bat bakarrik eta probatzeko kontsumitu dutenen portzentaia %10,4ra jaisten da. Beraz, esan dezakegu “kannabis-a ez den beste drogak hartu dutenen artean gehiago gertatzen dela legez kanpoko droga mota ezberdinak hartzea”.

Bestetik, legez kanpoko substantzien kontsumoaren garapenari dagokionez 2008ko datuek azaltzen dute “ikertutako ia substantzia guztiak probatzeko egiten den kontsumoa handitu egin dela, anfetaminena salbu, (orain ez dira nagusi), eta heroinarena

(iraunkor jarraitzen du)”. Horrela, gehien kontsumitzen diren substantzien barnean “gehien handitu direnak estasia (%3,3) eta kokaina (%8,7) dira, baina inoiz ez bezala kontsumitzen dira arnasten direnak (%1,3), ketamina (%1,1) eta mongi edo onddoak (%4,2).”

Azkenik adierazi behar da ikerturiko substantzia gehienak gehiago kontsumitzen badira ere, ez dela gaur egun edo azken garaian gehiago kontsumitzen. Beraz oro har esan liteke pixka bat beheiti egin duela gaur egungo substantzia horien kontsumoak.

**DROGAMENPEKOTASUNARI BURUZKO UDAL
PLANAREN GARAPENA
2008-2012**

PLANAREN HELBURUA

Drogamenpekotasunen Prebentzio Komunitarioko Udal Plana 2008-2012 proiektuaren helburua bizimodu osasungarriak sustatzea da. Helburua lortzeko komunitateak berak dituen berezko sare, talde eta baliabideak erabiliko dira.

Tokiko Planak komunitate osoa hartu behar du bere baitan, eta lehenasuna emango die drogamenpekotasuna sortzeko arriskutsuak diren substantziak hartzeko urrakorrakoak diren talde eta gizakiei.

Horretarako gizakia eta bere ingurua zaintzeko eragileak indartuko dira. Honek ekarriko du gizakiak, taldeak eta komunitatea duten ardura maila ezberdinetan jarduteko erakarriko dituzten gizarte eta osasun guneak sortzea.

Plana bera ez da helburua, tokiko eragile guztientzat nahi diren lorpenak eskuratzeko beharrezkoa den lan tresna baizik: udal zerbitzuak, tokiko gizarte eta osasun sarea, talde eta elkarteak, etab.

PLANAREN ERRONKAK

- “Drogamenpekotasunen Tokiko Batzordea” sortu eta “Mahai Komunitarioei” jarraipena ematea, Prebentzio Komunitarioaren Udal Planarekin lotuak diren parte hartzeko gune diren aldetik.
- Gizarte egituraren, udal zerbitzuen eta hiritarren bidez prebentzio eta bizimodu osasuntsuak sustatzeko mezuak ugaritu eta hornitzea.
- Drogamenpekotasuna prebenitzeko familien eskumena eta rol eragilea indartzea.
- Ikastetxeetan programen eskaintza zabaldu eta hornitzea.
- Artekariak sentikor bihurtu eta gaitzea.
- Osasuna sustatzeko, drogamenpekotasuna prebenitzeko eta kultur, kirol eta auzo elkarteekin arriskua gutxitzeko ekintzak garatzea.
- Osasuna sustatzeko, drogamenpekotasuna prebenitzeko eta udal zerbitzu eta departamentuekin arriskua gutxitzeko ekintzak garatzea.
- Gizarteko talde ezberdinei zuzenduriko kanpaina eta programak garatzea, arriskuaren eta kontsumorako duten joeraren arabera.
- Komunitatean eta ustezko erabiltzaileengan eragina handitzeko komunikazio estrategiak hobetzea.
- Plana burutzea lortzearekin zerikusia duten zerbitzuen arteko koordinazio protokoloak sistematizatzea.

PLANAREN BALIABIDE ILDOAK EKIMEN ESPARRUAREN ARABERA

Alorra	Ekintza Estrategikoak 2008-2012
<p>Familia</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gurasoei prebentzio estrategia osatzen duten proiektu eta programetan haiek partehartzea garrantzitsua dela ohartaraztea. • Eskola alorrean egiten diren gurasoentzako programak antolatzeko guraso elkarteen inplikazioa erraztea. • Aldizkako ekintzen bidez komunitatea sentikor bihurtzea familia harreman osasungarriak sustatzen. • Familiak lagundu eta bideratzeko lerroak hobetu eta hornitzea. • Gurasoentzako formazio programak hornitzea, artekari lana egingo duten komunitateko erakundeek parte hartuko dutelarik. • Lan egiteko eredu gehienbat taldea izan dadila eta ikuspegi hori familiei eskaintzea. • Helduak –Gurasoak – komunitateko artekariak diren aldetik Planaren ekintzetan laguntzeko sensibilizatu eta gaitzea. • Eraginkorrak izateko eta irizpide komunak izateko familiak helburu dituzten udal zerbitzuen arako koordinazio guneak gidatu eta sustatzea.

Alorra	Ekintza Estrategikoak 2008-2012
<p>Ikastetxeak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Osasunerako Heziketa programak eskola komunitateko alor guztietara hedatzea eta orokor egitea. • Prebentzio Zerbitzuak irakasleak prebentzio eragile gisa zuzenean aritzeko ikastetxeetan eta maila anitzetan sentikor bihurtu, gaitu eta aholkatzea • Ikasgela ez den beste zenbait hezkuntza gunetan prebentzio jardueri ekitea, ikastetxe bakoitzeko prebentzio estrategia hobetzeko. • Osasunerako heziketa ikastetxe alorreko programetan gurasoen parte hartzea hobetu eta orokor egitea. • Gazteek kontsumo arriskutsuen aurrean izan dezaketen urrakortasuna txikitzea, eskola alorreko prebentzio bereziko programak garatuz. • Ikastetxeek seme-alaben urrakortasuna gutxitzeko familian oinarrituriko ekintzak erraztea. • Familiekin prebentzio alorrean seme-alabekin eskolan garatzen diren programen eta gurasoei guraso diren aldetik zuzenduriko programen inguruko komunikazio estrategiak hobetzea

Alorra	Ekintza Estrategikoak 2008-2012
Komunitatea	<ul style="list-style-type: none"> • Udal Planaren Garapenari (Drogamenpekotasunen tokiko Batzordeari) eta Prebentzio Komunitarioko Udal zerbitzuari (Mahai Komunitarioei) lotuak diren parte hartzeko eta kontsultarako egiturekin jarraitzea, kontuan izanik bi egiturak osagarriak direla eta helburu gizartearen parte hartzea dutela. • Kultur, kirol ... elkarteetan buru egiten dutenei informazioa eta formazioa ematea, jakin dezaten zein den haien zeregina prebentzio alorrean. • Gazteen ekarpenak baliatu eta bideratzea komunitate mailan haiek parte hartzea errazten duten proposamenak eginez. • Hiritarrei Drogamenpekotasunaren Prebentzio Komunitarioaren Udal Planarekin lankidetzan jarduteko aukerez ohartaraztea. • Gazteek komunitatearen intereserako diren programetan parte hartzea erraztea. • Berezko laguntza diren sareak sustatzea errazten duten helduen arteko gune eta ekintzei etekina ateratzea.

Alorra	Ekintza Estrategikoak 2008-2012
Osasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Udal Plana zehazten duten parte hartze organoetan (Drogamenpekotasunen Tokiko Batzordean) osasun arloko profesionalen parte hartzea erraztea. • Gizarte eta osasun arloko profesionalentzako topagunea zehaztu eta beroni eustea, aldioro topaketak egin ahal izateko (Osasun Komunitarioaren Mahaia). • Programei, esperientzien garapenari, formazio topaketei eta abarri buruzko informazio trukaketa erraztea. • Tokikomania sor dezaketen substantziak erabiltzeagatik edo eragiten dituzten beste osasun arazoengatik dagoen arriskua gutxitu eta prebenitzeko programak elkarrekin egin eta beroiei ekitea. • Eskolaren osagarriak diren programen bitartez, osasun arloko profesionalak ere alkohola, tabakoa, edo kannabisa probatzeko gazteek duten urrakortasunari erantzuna ematea, prebentzio bereziaren bitartez. • Beste zenbait zerbitzuekin lankidetzan dagoenetan arreta zuzena emateko beharrezkoak diren irizpideak zehazten dituen protokoloa egitea.

Alorra	Ekintza Estrategikoak 2008-2012
Udal Zerbitzuak	<ul style="list-style-type: none"> • Tokiko Planarekin harreman hurbilena duten udal departamentuekin neurgarriak diren konpromisoak ezartzea. • Udal Zerbitzuen arteko lankidetzaren estrategiak ezartzea, bertan Prebentzio Komunitarioko departamentuen arteko aholkulari edo laguntzaile lana egingo delarik. • Sare lanaren bitartez udalak berezkoak dituen baliabideak baliatzea . • Tokiko Planaren eragina hedatzea beste zenbait udal departamentu lan horretan sartuz, “arazoa” direnengana ez ezik besterengana ere iritsiz eta bizimodu osasuntsua izateko lanean diharduten “gainontzeko herritarrekin” lan eginez.

Alorra	Ekintza Estrategikoak 2008-2012
Plana garatzeko interes orokorreko beste zenbait alderdi	<ul style="list-style-type: none"> • Zenbait tokiko politikaren eskualde izaera kontuan hartu eta Prebentzio Komunitarioko Udal planaren garapenean aintzat hartzea. • Planaren garapenak garatzen den alorretan eragina duen eskualdeko eragileekiko aliantzak erraztea. • Komunikabideak Drogamenpekotasunaren Prebentzio Komunitarioko Tokiko Planean duten zereginaz ohartaraztea. • Komunikabide eta Planaren garapenean ardura duten tokiko eragileen artean topaguneak sortzea. • Prebentzio Komunitarioaren inguruan garatzen diren ekimenei buruzko informazioa handitzeko komunikazio estrategia sortzea. • Aldiro erronka, konpromiso eta lorpenetan oinarrituriko argitalpenak egitea. • Hiritarrekiko komunikazioa hobetzea, Udal Planaren menpean dagoen alor estrategiko bakoitzeko programa eta proiektuetarako komunikazio euskarriak hobetu eta hornituz. • Planaren menpean dauden alor guztietan genero ikuspegia sartzea. • Arazoa sortzen duten kontsumoari erantzuten dioten programa eta proiektuak egin daitezela bideratu eta erraztea, genero bakoitzaren ezaugarri zehatzen arabera.

PLANA SUSTATZEKO BARNE KONPROMISO ETA AKORDIOAK

Alkatetza

- *Drogamenpekotasunen tokiko batzordea* eratzea.
- Lorpenak eta etorkizuneko erronkak urtero hedatzea (urteko plangintza).

Udal departamentuak:

- Gazteri eta Hezkuntza Departamentua
- Gizarte Zerbitzuen Departamentua
- Kirol departamentua
- Kultura departamentua
- Euskara departamentua
- Merkataritza eta Turismo Departamentua
- Udaltzaingoa

Departamentu guztientzako akordioak:

- *Barne formazioeko jardunaldia egitea*, gaia hau izango delarik: “Esku-hartze eremu bakoitzak Prebentzio Komunitarioko Udal plana garatzeko beharrak antzematea eta horiez ohartaraztea”.
- Haien zeregina lirartekeen ekintzei ekiteko beharrezkoak diren *formazio ekintzetan parte hartzea*.

Departamentu edo Zerbitzuen araberako akordioak:

Gaztedi eta Hezkuntza Departamentua

- Barne komunikazio protokoloa hobetzeko *lan mahaietan* parte hartzea.

Gazte Ekipamenduak: Sainduako Gaztelekua , Gazte Informazio Bulegoa eta Psilocybenea

- Planean zehaztuak diren eta gazteak helburu dituen Planean zehazturiko *mahai komunitarioetan* parte hartzea.
- Gazte ekipamenduen alorrean arriskuak prebenitu eta gutxitzeko informazio estrategia zehaztea.

Gizarte Zerbitzuen Departamentua

- Planean zehaztuak diren eta haiek parte hartzea beharrezkoa den *mahai komunitarioetan* parte hartzea.

Hirugarren Adinarentzako Zentroak

- *Adinduentzako aisiarako guneetan alkohol eta tabakoaren kontsumoa prebenitzeko plana* egin eta horri ekitea.
- *Adinduei zuzenduriko prebentzio plana* egin eta horri ekitea, *gaia norke bere burua medikatzearen arriskua delarik*.

Kirol departamentua

- Eskola kirolak, elkarteek, kirol klubek eta abarrek arriskua gutxitu eta prebenitzeko bertan *estrategiak eratu eta diseinatuko den lan mahaia eratzea*.

Kultura departamentua

- Planean zehaztuak diren eta haiek parte hartzea beharrezkoa den *mahai komunitarioetan* parte hartzea.
- *Kultur eta jai jarduera guztietan arriskuak gutxitu eta prebenitzeko ekintzak* sartzea.

Euskara Departamentua

- *Kultur eta jai jarduera guztietan arriskuak gutxitu eta prebenitzeko ekintzak* sartzea.

Merkataritza eta Turismo Departamentua

- Haien eskumenekoak diren *gune eta jardueretan arriskuak gutxitu eta prebenitzeko ekintzak* garatzea, *ostalaritzak parte har dezan* sustatuko dutelarik.

Udaltzaingoa

- Planean zehaztuak diren eta haiek parte hartzea beharrezkoa den *mahai komunitarioetan* parte hartzea.
- *Barne komunikazio protokoloa* hobetzeko lan mahaietan parte hartzea.
- *Arriskuak gutxitzeko programetan* parte hartzea.
- *Substantzien eskaintzaren kontrola* egitea.